

2

Euskarazko udal jarduerak ba al dute lege babes eraginkorrik? Normalizazio eredu berri baten bila

Iñigo Urrutia Libarona

UPV/EHU – Euskal Herriko Unibertsitatea

Administrazio Zuzenbideko Irakaslea

i.urrutia@ehu.eus

Sarrera-data: 2015-03-30 | Onartze-data: 2015-06-25

Laburpena. Artikulu honetan, soziolinguistikoki euskaldunenak diren udalerrietan euskarazko funtzionamendu babesteko zein-nolako lege-egoera dagoen argitzen saiatuko gara. Bereziki, euskaraz lan egiterakoan udalerriek dituzten erroka eta beharrezane begira Udal Legearen proiektuak erantzun egokiak eskaintzen ote dituen aztertuko da. Horretarako, honako eskema metodologikoa jarraituko da: 1) hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren hedapenaren aztertuko da, 2) Konstituzio Auzitegiak 2010. urteaz geroztik abiarazi duen jurisprudentzia berriak dakartzan paradigma aldaketa aurkeztuko da, eta 3) Udal Lege proiektuak aurreikusi dituen ezarpenak erakutsiko dira, udalerriei euskaraz funtzionatzeko babes nahikoa eskaintzen ote dien ebaluatzeko. • **Hitz gakoak:** hizkuntza-legedia, jurisprudentzia, Udal lege proiektua, Euskararen Normalizazio Legea.

Abstract. This article will endeavour to clarify what kind of legal situation exists to protect the Basque language functioning in municipalities that are the most Basque-speaking ones in sociolinguistic terms. In particular, it will be looking at whether the draft Municipal Law offers an appropriate response to the challenges and needs of municipalities when working in Basque. For this purpose, the methodological outline below will be followed: 1) the spread of dual official language status will be examined; 2) the paradigm change ushered in by the new jurisprudence that has been launched by the Spanish Constitutional Court since 2010 will be presented; and 3) the stipulations established by the Municipal Draft Law will be looked at to assess whether or not they offer sufficient support for municipalities to operate in Basque.

• **Key words:** language legislation, jurisprudence, Municipal draft law, the law on the Normalisation of Basque.

1. HELBURUA

I

Lan honen helburua, funtsean, soziolinguistikoki euskaldunenak diren udalerrietan euskarazko funtzionamendu babesteko Lege aterkirik ba ote den argitzea da. Helburu hori ardatz hartuta, alde batetik, berezko hizkuntza (hizkuntza propioa) udal administrazioetako ohiko hizkuntza bihur ote daitekeen aztertuko dugu, gaiari buruzko azken jurisprudentziak hizkuntza ofizialen erabilpenari buruz ezarri duen doktrinan erreparatuz, eta bestetik, Udal Lege proiektuak¹ euskara udaleko hizkuntza erkidea (normala edo orokorra) bihurtzeko aurreikusi dituen aukerak aztertuko ditugu. Udal Lege proiektuak konfiguratu duen hizkuntza sistema analizatzeaz gain, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzko 10/1982 Legeko² sistemarekiko zein berrikuntza dakartzan azaltzen ahaleginduko gara.

Lanaren xedea, beraz, honako galdera honi erantzuna bilatzean datza: euskaraz lan egiterakoan udalerriek dituzten erronka eta beharrrizanei begira Udal Legearen proiektuak erantzun egokiak eskaintzen ote ditu? Ez dut jardungo, beraz, Udal Legearen proiektuaz modu orokorrean, gai konkretu batez baizik: udalerrietan administrazio jarduera euskaraz burutzeko berme nahikorik aurreikusi ote diren jorratuko dut.

Galdera horrek udal lege proiektuari buruzko azterketa kritikoa egitera zuzentzen nau, hortaz, aurreikusi dena hobetze aldera proposamen batzuk luzatzera ausartuko naiz. Aitortu behar dut eginkizun hau zailtasunez beterikoa dela, ez bakarrik nire gaitasun mugatuagatik edota hobetzeak, berak, duen karga subjektiboagatik, zein tokian-tokiko ezau-garri soziolinguistikoen arabera hobetzeaz zer ulertu behar den gauza desberdina izan daitekeelako³, baizik eta hobekuntza oro bere testuingurua eskatzen duelako, bereziki lege gaiez jarduterakoan. Hots, hobekuntzak bilatze aldera, planteamenduetatik bat Estatuko marko juridikoak eta jurisprudentziak ezarri dituen mugetara ahalik eta gehien hurbiltzea izango litzateke. Bereziki, horretan saiaturiko naiz lan honetan, lege proiektuak osatu gabe utzi dituen zirrikituak estaltze aldera eta euskararen berreskurapen osotik gertuen izan daitezkeen planteamenduak mahaigainertzeko intentzioz. Ordea, beste planteamendu bat zera izan daiteke: EAEko udalerriek behar dutenari begira jartzetik abiatuz, aztertzea zein lege edo marko beharko genukeen, euskara udalerriko erabilera normaleko hizkuntza izan dadin, betiere euskararik ez dakitenen hizkuntza eskubideak errespetatuz. Bigarren planteamendu honek zenbait lege-paradigma aldatzea eskatzen ditu, udal testuingurua gain-

***Lan honen
helburua,
funtsean,
soziolinguistikoki
euskaldunenak
diren
udalerrietan
euskarazko
funtzionamendu
babeesteko Lege
aterkirik ba ote
den argitzea da.***

**Konstituzioko 3.2
eta Gernikako
Estatuaren 6.1
artikuluetan
ezarritakoaren
itzalez, EAEn
euskara berezko
hizkuntza
(hizkuntza
propioa) izateaz
gain hizkuntza
ofiziala ere bada,
gaztelarekin
batera.**

dituko luketen paradigmak hain zuzen ere; edozelan ere, bide horretatik ere zertzelada batzuk marrazten saiatuko naiz.

Lan honetan jarraituko dudan eskema metodologikoak, funtsean, hiru atal izango ditu: lehenbizi, hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren hedapenaz jardungo dut; bigarrenik, Konstituzio Auzitegiak 2010. urteaz geroztik abiarazi duen jurisprudenzia berriak dakartzan paradigma aldaketan erreparatuko dugu, euskaraz lan egiterakoan udalerrietan planteatzen ohi diren arazo juridikoekin erkatuz, eta hirugarrenez, Udal Lege proiektuak aurreikusi dituen ezarpenak aztertuko ditugu, udalerriei euskaraz funtzionatzeko babes nahikoa eskaintzen ote dien ebaluatzeko, eta sor daitezkeen arazo juridikoei irtenbidea bilatzen saiatuko gara.

2. HIZKUNTZA OFIZIALTASUN BIKOITZA: ABIAPUNTUA ETA HELMUGA?

I
Gaia bere neurrian koka dezagun, Konstituzio espainiarrak agertzen duen hizkuntza ofizialtasun sistemari erreparatetik abia gaitzen. Ezaguna denez, Konstituzioaren 3 artikulua, bere lehen paragrafoan, gaztelera Estatuko hizkuntza ofiziala dela ezarri du, espainiar guztiak berau ezagutzeko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea dutela gaineratuz. Bigarren paragrafoak gainerako hizkuntzez dihardu, Autonomia Erkidegoetako lurraldearen barne ofizialak izango direla ezarriz, Autonomia Estatutu bakoitzak arau dezakeenaren arabera⁴. Konstituzioko 3.2 eta Gernikako Estatuaren 6.1 artikuluetan ezarritakoaren itzalez, EAEn euskara berezko hizkuntza (hizkuntza propioa) izateaz gain hizkuntza ofiziala ere bada, gaztelarekin batera⁵.

Konstituzioko 3 artikulua eraginez esan daiteke, orokorrean edo termino estrukturaletan, gaztelaren nagusitasuna ezarri dela. Gailentasun juridiko horrek lau isla nagusi ditu:

a) Gaztelera hizkuntza bakarra duten Estatuko eremu geografikoetan lurraldetasun printzipioa hertsiki aplikatzen da⁶.

b) Aldiz, hizkuntza propio edo berezko hizkuntzadun eremuetan pertsonaltasun printzipioa dugu indarrean. Eremu horietan bi hizkuntza ofizial elkar bizi dira eta ofizialtasun bikoitzaren ondorioz hizkuntza ofizialetatik bat aukeratzeko eskubide publiko subjektiboa sortzen da⁷. Konstituzio araubidearen indarrez ez dago berezko hizkuntzei lurraldetasun printzipioa aplikatzerik; hots, euskara hizkuntza ofizial bakarra izango den lurralderik ezin ezar daiteke.

Euskara hizkuntza ofizial den eremu guztietan, gaztelera ere hizkuntza ofizial izango da, euskararekin batera. Beraz, lurralde horietan gaztelera zein euskara erabili nahi dutenen hizkuntza eskubideak eraginkorki bermatu beharko dira.

c) Konstituzioak gaztelera jakiteko betebeharra ezarri du, eta horren itzalez espainiar guztiak gaztelera ezagutzen dutenaren presuntzioa dago⁸. Presuntzio horretan oinarrituz Administrazioek gaztelera jardun ahal izango dute. Aldiz, Autonomia Erkidegoetako berezko hizkuntzak jakiteko betebeharrak ezin ezar daiteke, Konstituzioa muga baita horretarako. 2006ko Kataluniako Estatutu berriak katalanera jakiteko betebeharra ezarri zuen, eta hona Konstituzio Auzitegiak esandakoa:

El deber constitucional de conocimiento del castellano, antes que un deber “individualizado y exigible” (STC 82/1986, FJ 2) de conocimiento de esa lengua, es en realidad el contrapunto de la facultad del poder público de utilizarla como medio de comunicación normal con los ciudadanos sin que éstos puedan exigirle la utilización de otra... para que los actos de imperium que son objeto de comunicación desplieguen de manera regular sus efectos jurídicos. En el caso de las lenguas cooficiales distintas del castellano no existe para los poderes públicos una facultad equivalente... El art. 6.2 EAC sería inconstitucional y nulo en su pretensión de imponer un deber de conocimiento del catalán equivalente en su sentido al que se desprende del deber constitucional de conocimiento del castellano⁹.

Adierazpen horretan Konstituzio Auzitegiak gaztelaren aldeko desoreka baieztatu zuen. Konstituzio Auzitegiak gaztelera jakiteko betebeharrak konstituzionala ofizialtasunaren ohiko eragin batekin lotu zuen (bere hitzetan: *la facultad del poder público de utilizarla como medio de comunicación normal con los ciudadanos sin que éstos puedan exigirle la utilización de otra*). Ahalmen hori, esan bezala, hizkuntza ofizialtasunari lotu behar zaion eragina da, baina Konstituzio Auzitegiaren interpretazioaren arabera, gaztelarentzat soilik gorde da, “gaztelera jakiteko betebeharra” rekin lotuz.

d) Estatuko egitura politiko eta administratiboetan elebakartasuna aplikatzen da. Erakunde zentraletan hizkuntza propioak erabat gutxietsiak daude, erabilera ofizial gutxi batzuk aitortuak izan badira ere¹⁰ (eskatzeko eskubidea / Senatuko zenbait agerraldietan / administrazio erregistroetan hizkuntza (ko)ofizialak baliatzeko ahalmena / administrazio elektronikoa baliatuz hizkuntza (ko)ofizialak erabiltzeko ahalmena...).

**Konstituzioak
hizkuntza
aniztasunari
eskaini dion
tratamendua bi
baliabideen
bitartez gauzatu
da: alde batetik
ofizialtasuna
aitortuz,
hizkuntza
propioei
dagokienez
geografikoki zein
kompetentzialki
hura zedarrituz.**

**Oinarri juridikoa
duen hizkuntzen
arteko trataera
desorekatu
horrek isla
soziolinguisti-
korik ere badu.
Batetik, Estatuko
botere publiko
zentralekin
harremanak
izateko euskara
jakitea ez da
erabilgarria;
bestetik,
Erkidegoan
dauden
botereekin
harremanak
izateko euskara
jakitea ez da
ezinbestekoa,
gaztelera jakitea
bai, ordea.**

Lau ezaugarri horiekin batera, azpimarra dezagun Konstituzio espai-
niarraren 3. artikuluko 3 paragrafoak bete behar orokor bat ezarri
duela, hots hizkuntzak eta hizkuntza-aldareak begirunez hartu eta
babestu behar direla aginduz¹¹.

Laburbilduz, Konstituzioak hizkuntza aniztasunari eskaini dion trata-
mendua bi baliabideen bitartez gauzatu da: alde batetik ofizialtasuna
aitortuz, hizkuntza propioei dagokienez geografikoki zein konpetentzialki
hura zedarrituz. Hots, batetik, berezko hizkuntzen ofizialtasunak Au-
tonomia Erkidegoen lurraldeetara hedatzen da, bertan kokatuta dauden
erakunde guztietan eraginak sortuz, eta bestetik, Konstituzioak jaso
duen zedarritze konpetentzialaren arabera, euskararen ofizialtasuna
Autonomia Estatutuak ezartzen duenaren arabera izango da. Kons-
tituzioak aurreikusi duen bigarren baliabidea, hizkuntza aniztasuna
sustatzeko betebeharrak orokor bat agintzea izan da (botere publiko guztiei
dagokiena, Erkidegoko erakundeak direla zein Estatuko erakundeak
direla) hizkuntza aniztasuna begirunez hartu eta babes dezaten.

Oinarri juridikoa duen hizkuntzen arteen trataera desorekatu horrek
isla soziolinguistikorik ere badu. Hona hemen tratamendu juridikoak
sortarazten dituen bi eragin soziolinguistikorik nagusienak: batetik,
Estatuko botere publiko zentralarekin harremanak izateko euskara jakitea
ez da erabilgarria; bestetik, Erkidegoan dauden botereekin harremanak
izateko euskara jakitea ez da ezinbestekoa, gaztelera jakitea bai, ordea.

Hori horrela izanik, euskara bezalako hizkuntza gutxituen normalizazio
prozesuei erronka gogorrak planteatzen zaizkie, berezko hizkuntza udal
funtzionamenduko hizkuntza normala bihurtzeko bidean, gaztelaren ofi-
zialtasunari oztopo izan gabe. Azter dezagun jarraian ofizialtasun bikoitza
eta hizkuntzaren erabilpenaren arteko harremana juridikoki zertan datzan.

2.1 Ofizialtasun bikoitza eta hizkuntza erabilera

Sistemaren oinarrietara bueltatuz, EAEn pertsonaltasun printzipioa
dugu aplikagarri. Pertsonaltasun printzipioa aplikagarri izanik, zailtasun
juridikoak sortzen dira berezko hizkuntzari administrazio jardueretan
erabateko lehentasuna eskaintzeko¹², baina pertsonaltasun printzipioak
ez du errotik baztertzen berezko hizkuntzaren bitartez jarduerak publiko
normalizatua. Bereko hizkuntza, hizkuntza bakarra bihurtzeko ezin daitekeen
arren, nolabaiteko lehentasuna eskaintzeko aukera juridikoak egon,
badira, normalizazio prozesuari egokituak. Lan honetan aukera juridiko
horiek zein diren eta zein muga dituzten argitzen saiatuko gara.

Ikuspegi juridikotik abiatuta, hizkuntza, administrazio-egintza eta jardueren elementu formal bat besterik ez da, elementu instrumentala esan genezake¹³. Hizkuntza ofizialtasunak, formalki baliozkoa bihurtzen du dena delako egintza edo jardura. Hots, hizkuntza bat ofizial deklaratu izan bada, juridikoki horrek adierazten duena da hizkuntza horretan burututako jarduerak erabateko baliozkotasuna izango dutela (hizkuntzari dagokionez behintzat) eta eragin juridikoak sorrarazi behar dituztela¹⁴. Ofizialtasuna hizkuntza bat bakarrarentzat gorde egiten denean (Frantziako estatuan, kasu), hizkuntza hori baliatu beharko da. Aldiz, bi hizkuntza ofizial direnean, horietako bakoitza da ofiziala, eta ez dago ezertan biak elkarrekin erabili beharrik dena delako jardura eragin juridikoak sorraraz dezan. Ofizialtasun bikoitzak ez du erabilera elkarturik ezinbestean eskatzen, hizkuntza bakoitza, bere aldetik, ofiziala baita. Beste modu batez adieraziz, ofizialtasuna ez da lotu behar testu elebidunekin edo erabilera elkartuarekin, bestela hizkuntza bakoitzaren ofizialtasuna, bera, zalantzan jarriko genuke.

Konstituzio Auzitegiak hizkuntza ofizial bakar baten erabileraz behin baino gehiagotan jardun du, zera adieraziz:

“Si es inherente a la cooficialidad el que, en los territorios donde exista, la utilización de una u otra lengua por cualquiera de los poderes públicos en ellos radicados tenga en principio la misma validez jurídica, la posibilidad de usar solo una de ellas en vez de ambas a la vez, y de usarlas indistintamente, aparece condicionada, en las relaciones con los particulares, por los derechos que la Constitución y los Estatutos les atribuyen”.¹⁵

Paragrafo horretan Konstituzio Auzitegiak adierazten diguna zera da: administrazio jardura bat baliozkoa izan dadin eta eragin juridikoak sor ditzan bi hizkuntza ofizialak ez direla ezinbestean elkarri lotuta etorri behar. Hizkuntza ofizialetatik bat erabil daiteke, betiere norbanakoen hizkuntza eskubideak errespetaturik. Konstituzio Auzitegiak ideia bera modu argiagoan eman zuen Epai berean:

“la utilización por los poderes públicos de una sola de las lenguas cooficiales puede hacerse indistintamente, por propia iniciativa o incluso a elección de los interesados, cuando así se regule, siempre que no se lesionen los derechos de ningún interesado que pueda alegar válidamente el desconocimiento de la lengua utilizada, lo que sólo puede hacerse respecto de lengua distinta del castellano. El que todo el procedimiento pudiera realizarse en euskera, es consecuencia natural del carácter oficial de esta lengua en la Comunidad Vasca, que conlleva la eficacia, en su ámbito, de las actuaciones realizadas en la misma”.¹⁶

**Ofizialtasun
bikoitzak ez du
erabilera
elkarturik
ezinbestean
eskatzen,
hizkuntza
bakoitza, bere
aldetik, ofiziala
baita. Beste
modu batez
adieraziz,
ofizialtasuna ez
da lotu behar
testu
elebidunekin edo
erabilera
elkartuarekin,
bestela hizkuntza
bakoitzaren
ofizialtasuna,
bera, zalantzan
jarriko genuke.**

***Halere, aipatu
jurisprudentzia
ez da EAEn
aplikagarria
suertatu.***

Auzitegi Gorenak ere bide beretik zera adierazi du: “el bilingüismo no supone la obligación de todas las Administraciones Públicas de producir en las dos lenguas la totalidad de sus actuaciones”¹⁷. Beste Epai batean Auzitegi Gorenak zera adierazi zuen: “cabe que por ley autonómica resulte un uso prioritario del gallego, siempre que se respeten los límites que representa el modelo lingüístico constitucional... y, por tanto, el derecho de todo ciudadano a usar el castellano tanto en sus relaciones con los poderes públicos —incluyendo la facultad de solicitar traducción al castellano cuando se alegue incompreensión del gallego— como en su participación, en condiciones de igualdad, en los asuntos y funciones públicas”¹⁸. Ondorenez, hizkuntza ofizial bakar batean burururiko jarduerak baliozkoak dira erabat.

Halere, aipatu jurisprudentzia ez da EAEn aplikagarria suertatu. Horren arrazoiak, nire ustez, hiru hauek dira: a) Euskararen erabilerari nolabaiteko lehentasuna eman nahi bazaio, juridikoki elementu bereizgarriren bat identifikatu beharko genuke. Ofizialtasuna ezin daiteke elementu bereizgarria izan, euskara ofiziala baita gaztelera bezala. Elementu bereizgarria Autonomia Estatutuko 6. artikulua aipatzen duen “berezko hizkuntza” izan daiteke, euskarari gorde zaiona hain zuzen ere. Halere, berezko hizkuntzaren kontzeptua ez da eduki juridikoz bete¹⁹; hots, ez da kontzeptu hori garatu Katalunian bezala²⁰, eta horrek ofizial diren hizkuntzen arteko oreka bermatzea ekarri du. Edozelan, gero ikusiko dugunez, Konstituzio Auzitegiak, berriki, mugatu du berezko hizkuntzaren kontzeptuari Kataluniako araubidean eman zaion irakurketa. b) Legearen indarrez, gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetan erabilera simetrikoa da arau nagusia. c) Euskal Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren jurisprudentzia, eta baita Gorenarena ere, bereziki murritzailak izan dira, hizkuntzen ofizialtasun bikoitzaren erregimena interpretatzerakoan euskarari dagokionez behintzat.

Azken faktori horri dagokionez, hona hemen, adibide modura, jurisprudentiaren adierazgarri batzuk:

Auzitegi Nagusiaren aburuz, euskara hutsezko udal jarduerak berez konstituzioz kontratatzat dira, eta horrek “convierte en inoperantes las manifestaciones de la contestación a la demanda acerca de que se mantiene la posibilidad de relacionarse en castellano con el ciudadano que así lo requiera”²¹.

Euskara udal hizkuntza bezala arautzeko eskumenari dagokionez, Auzitegi Gorenak zera dio:

“el fomento y desarrollo del uso del euskera no es competencia de los municipios, pues de forma inequívoca tal competencia corresponde a la Comunidad Autónoma del País Vasco según establece el artículo 6 del Estatuto de Autonomía”²².

Argi dago Estatutuaren arabera euskararen ofizialtasuna arautzeko eskumena erakunde erkideei dagokiela, baina horrek ez du esaterik nahi udalerriek inolako eskumenik ez dituztenik, Auzitegiak dioen lez. Udalek hizkuntza erregimena garatu eta beren barne funtzionamenduan zein eskumeneko zerbitzu publikoetan hizkuntza erabilera eta eskubideak ezarri behar dute, erkidegoko araubidea garatuz.

Udalerri euskaldunen Mankomunitateari buruz, zera adierazi da:

“...las Mancomunidades de entes locales sólo pueden constituirse de forma válida para la realización de fines que consistan en la prestación de servicios de competencia municipal. El fomento y desarrollo del uso del Euskera no es competencia de los municipios”²³.

Esan bezala, hizkuntzen barne erabilera arau daiteke, betiere errespetaturik norbanakoei aitortzen zaien hizkuntza ofizialen arteko aukeraketa eskubidea. Halere, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzian oinarri hartzen duen eragin hori ez da onartu euskararen kasuan. Horren adibide dugu beste Epaia hau:

“como especie de cláusula de salvaguarda, se reconoce el derecho a ser atendido en Castellano, cláusula residual y sin contenido real alguno cuando previamente se está indicando que más del 90% de los vecinos son vascoparlantes (a lo que cabe responder con que no se acredita tal extremo)”²⁴.

Hizkuntza paisaia euskararen normalizazioa gauzatzeko egin diren ahaleginak ere gaindiezineko oztipo juridikoak aurkitu dituzte:

“concluimos de igual forma en cuanto a los rótulos de establecimientos y al etiquetaje de mercaderías, es más, la expresión al menos en Euskera supone que bastará con que se utilice este de donde nuevamente queda en evidencia la intención de suprimir el habla y la grafía Española o castellana”²⁵.

Bestalde, euskararen erabilera sustatzeko udalerriek hartu dituzte neurri positiboak ez dute Auzitegiaren oniritzirik jaso. Horren adibideetatik bat Aguraingo Euskara Ordenantzaren aurkako Epaian aurki dezakegu:

“Fomento del euskera en el municipio de Agurain: comprende los artículos 15 a 22. Como afirma el Abogado del Estado, el contenido de los preceptos, es-

tablece una evidente «discriminación positiva» a favor del euskera y en detrimento del castellano, preferencia que vulnera el principio de igualdad y la normativa relativa a la cooficialidad del castellano”²⁶.

Udal barneko hizkuntza erabilera eta hiritarrekiko hizkuntza erabilera desberdinduz egin diren ahaleginek ere oztopoak aurkitu dituzte. Hona hemen beste adibide bat:

“Según la tesis de la Corporación recurrente la norma parcialmente anulada únicamente trata de potenciar el uso de la lengua vasca, de conformidad con el elevado porcentaje de vascoparlantes existente en el municipio, y se limita a regular el uso del euskera en el ámbito de la Administración Municipal, de suerte que ningún habitante de la zona se ve compelido a utilizar de forma exclusiva una única lengua ... no puede soslayarse la clara infracción del artículo 3.1 de la Constitución, en relación con el principio de igualdad proclamado en su artículo 14, desde el momento en que el deber de conocimiento del idioma castellano y el derecho a utilizarlo no queda limitado al ámbito de las relaciones privadas, sino que se impone asimismo en el campo de las que han de mantenerse con la misma Administración”²⁷.

Irakurketa mugakor bera aurki daiteke beste Epai honetan ere:

“los artículos 4, 5, 17, 19, 20, 40, 42 y 44 de la Ordenanza disponen que todas las actuaciones, diligencias y comunicaciones se harán en euskera, y es claro, que esa previsión expresa, infringe lo dispuesto en el artículo 3.1 de la Constitución, que tras disponer que el castellano es la lengua oficial del Estado, declara que todos los españoles tiene el derecho a usarla y el deber de conocerla”²⁸.

Aipatu ditugun horiek, adibidetzat har daitezke, beste hainbat Epai baitaude bide berean sakontzen dutenak²⁹. Ideia orokorra zera izan daiteke, batetik euskarazko udal jarduerak lege babesik ez dutela eta bestetik euskarazko funtzionamendua ezegonkortasun juridikoan murgilduta dagoela. Udalek euskaraz jarduterakoan aurkitu dituzten arazo juridikorik nagusienak honakoak izan dira: euskara arautzeko udal eskumen edo gaitasuna kolokan jarri da; norbanakoak hizkuntza aukeraketa egin ezean udal jarduerak bi hizkuntzetan burutzeko beharra; euskarazko barne funtzionamenduak “berez” kaltetzen ditu gazteleradunen esku-bideak; Administrazio arteko harremanak gazteleraz (edo bietan) egiteko beharra; euskararen erabilpena baloratzeak (sustapen politikaren testuinguruan) diskriminatu egiten du; euskara sustatzeko diru-laguntzak tributu legaltasunaren aurkakotzat jo dira; eta kontratuetan hizkuntza klausulak kolokan jarri izan dira.

2.2 Euskal Autonomia Erkidegoko sistema hizkuntzen erabilerari dagokionez

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien hizkuntza erabilera sistema, gaur gaurkoz, Euskararen Erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/19982 Oinarrizko Legeak (Euskararen Legeak) ezarri du. Administrazioetan euskararen erabilpenari dagokionez, Euskararen Legeak hiru gauza desberdin arautu ditu:

a) Lehenbizi, norbanakoei aitortutako *hizkuntza eskubideen planoa* dugu. Honi dagokionez, hizkuntza aukeraketa eskubidea aitortu ez ezik, Administrazioari beharra ezartzen zaio norbanakoaren hizkuntza aukeraketara egokitzeko (6.1 art). Hizkuntza aukeratzeko eskubidea ofizialtasun bikoitzaren ondorio zuzena da, norbanakoen esku dagoena, eta EAEn kokatuta dauden administrazio guztietan balia daitekeena. Plano honek bi hizkuntza ofizialei begira berdin funtzionatu behar luke.

b) Bigarren, *administrazio prozedurek aplikagarri duten hizkuntza araubidea* daukagu. Udalerrien kasuan, bigarren plano hau Euskararen Legeko 6.2 artikulua bitartez arautu da. Bere indarrez, pertsona batek baino gehiagok esku hartzen duen espediente edo prozeduretan, alde biek adostasunez erabaki dezaten hizkuntza erabiliko dute botere publikoek³⁰. Hots, udal administrazioek tramitatzen dituzten prozedurak euskaraz edo gazteleraz egin beharko dira, interesdun diren pertsonak baliatzen duten hizkuntzaren arabera.

c) Eta hirugarren, *Administrazio jardueren planoa* dugu. Hirugarren plano honi dagokionez Euskararen Legeak, EAEn lurralde osoaren barrera dauden ezberdintasun soziolinguistikoak kontutan izanik, erregimen erkide (*comun*) bat aurreikusi zuen – berau orokorrean aplikatzeari begira- (8.1.eta 2) eta baita erregimen berezi bat ere (8.3) – euskaldunenak diren gunetara aplikatzeari zuzenduta. Esan behar da bikoiztasun honek Gernikako Estatutuak, bere 6 artikuluan, euskararen ofizialtasuna arautzerakoan ezartzen duen parametro bati erantzutera zetoze. Hots Estatutuko 6.2 artikulua Erakunde Erkideei ahalmena aitortzen dizkie hizkuntza ofizialen erabilpena arautzeko “betiere Euskal Erkidegoan dagoen aniztasun soziolinguistikoa kontutan hartuz”. Bi hitzetan, EAEko errealitate soziolinguistikoa aniztetik abiatuz, legeak sistema dual edo bikoitza aurreikusi zuen:

***Idea orokorra
zera izan daiteke,
batetik
euskarazko udal
jarduerak lege
babesik ez dutela
eta bestetik
euskarazko
funtzionamendua
ezegonkortasun
juridikoan
murgilduta
dagoela.***

**Euskal
Autonomia
Erkidegoko
udalerrien
hizkuntza
erabilera
sistema, gaur
gaurkoz,
Euskararen
Erabilera
arautzen duen
azaroaren 24ko
10/1992
Oinarrizko
Legeak
(Euskararen
Legeak) ezarri
du.**

Arau nagusitzat hartu dena zera izan da: Administrazioek burutzen dituzten jarduera guztietan bi hizkuntzak elkarrekin baliatu behar dira. Horrela, arau-xedapenak, ebazpen ofizialak, egintzak, baita administrazioaren jakinarazpen eta adierazpenak ere bi hizkuntzetan idatzita egon beharko dute, salbu eta interesdun partikularrek Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako bat berariaz erabiltzea aukeratzen badute³¹. Erregimen nagusia: erabilera elkartua da (bi zutabeetako eredua, alegia), eta salbuespena, aldiz, erabilera bakarra, norbanakoaren esku dagoena.

Erregimen berezia 8.3 artikulua jaso zuen, gunerik euskaldunenetan aplikagarria izan zedin, euskara hutsezko jarduerak aintzatetsiz. Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko Legeko 8.3 artikulua zera xedatu zuen:

“Aurrekoan agindukakoa gora behera, herri-aginteek euskara bakarrik erabili ahal izango dute toki-administrazioaren esparruan baldin eta, udalerriaren ezaugarri soziolinguistikoak direla-eta, herritarren eskubideak kaltetzen ez badira”³².

EAEn sistema berezitzat hartu zena Galizia eta Katalunian sistema erkide bezala hartu zen, Auzitegi Gorenaren babesa jaso zuena, gorago esan bezala³³. Halere, ezaguna denez, Konstituzio Auzitegiak Euskararen Legeko 8.3 artikulua konstituzio-kontrakotzat jo zuen, zera adieraziz:

“la exclusión del castellano no es posible porque se perjudican los derechos de los ciudadanos, que pueden alegar válidamente el desconocimiento de la lengua cooficial... El art. 8.3 viene a ser inconstitucional por infracción de lo dispuesto en el art. 3.1 de la CE, en relación con la no existencia del deber de conocimiento del euskera en zona alguna del territorio del Estado, que resulta del art. 6 EAPV”³⁴.

Konstituzio Auzitegiaren fokatzeak zalantza juridikoak sortarazten ditu. Auzitegiak gaztelera jakiteko betebeharretik abitu zuen bere argumentazioa, betebehar horri gaztelera ezagutzen denaren presuntzioa lotuz, eta presuntzio horren aitzakian administrazioek gaztelera jardun dezaketela baieztatu zuen. Aldiz, euskara jakiteko betebeharrak ez dagoenez ez da izango euskara ezagutzen denaren presuntziorik, ondorenez administrazioek ez dute euskaraz jarduterik. Nire ustez planteamendu hori okerra da. Planteamendu zuzena ofizialtasunetik abiatu beharko luke, hizkuntza ofizial batean zein bestean burututako jardueri eragin juridikoak aitortu behar zaizkiola ondorioztatzeko. Edozein dela administrazioak bere barne jardueretan baliatzen duen hizkuntza ofiziala, hiritarren hizkuntza eskubideak bermatu beharko ditu. Hala ulerturik,

8.3 artikulua hura konstituzioaren arabera kotzatu deklaratu behar izan zen. Azpimarra dezagun, bukatzeko, Epaiak ez zuela adierazi bi hizkuntzak elkarren ondoan etorri behar direnik eragin juridiko ofizialak sortzeko, adierazi zuena da hizkuntza ofizial bat baztertua dela posible. Hori bermatze aldera, modulatuzaileak baliatu ahal izango dira, euskara ohiko hizkuntza edo normalean erabiliko den hizkuntza agertuz baina ez hizkuntza bakarra euskara izango denik.

Euskararen Legeak bere 8.3 artikuluan aurreikusi zuen erregimen berezia deuseztatu ondoren, indarrean geratu den erregimen bakarra erregimen orokorra da: bi hizkuntzen erabilera elkartua eskatzen duena alegia. Lege aginduz, botere publikoen egintza guztiak elebidun izan behar dute baliozkoak izan daitezen. Hizkuntza ofizial bakar bat erabil dadin baldintza bat eskatzen da: hiritar interesdunek hizkuntza ofizial bat bakarra erabil dadila aukeratzea.

Sistema hori zurrunezia da euskaldunenak diren gune soziolinguistiko-entzat. Udalerri euskaldunentzat Euskararen Legea oztopo bihurtu da. Hizkuntza araubideak errealtate soziolinguistikora egokitze premia du. Izan ere, erabat euskaldunak diren udalerrietan euskararen erabilerak bizitasun handiena du, Administrazioa eta interesdunen artean komunikazio tresna eraginkorra izanik gazteleraren laguntzaren beharrik gabe, betiere gaztelera erabili nahi (edo behar) duten pertsonen eskubideak bermatuz. Ondorioz, 8.3 artikulua deuseztatu ondoren, euskarazko jarduerak babesgabe edo estaldurarik gabe geratu dira. Hortaz, euskarazko udal jarduerak lege estaldura edo habilitazioaren premia dute.

3. PARAMETRO BERRIAK: HIZKUNTZA OFIZIALEN ARTEKO SAIHESTEZINEKO OREKAREN PRINTZPIOA

Berriki, Kataluniako Estatutuari buruzko 31/2010 Epaiari, Konstituzio Auzitegiak hizkuntza erregimenaren interpretazioari parametro berriak ezarri dizkio. Bi dira une honetan azpimarratzea interesatzen zaizkigun berrikuntzak: saihestezineko orekaren printzipioa eta norbanakoek jaso behar dituzten komunikazioen hizkuntza erregimena. Azter ditzagun banaka.

3.1 Saihestezineko oreka eta hizkuntza baten lehentasuneko erabilera

31/2010 Konstituzio Auzitegiaren Epaiari Kataluniako Estatutuak aintzatesten duen “berezko hizkuntza”ren hedapenaz jardun zuen. Ezaguna denez, Kataluniako Estatutuak, bere 6 artikuluan, hizkuntza propioaren

**Euskararen
Legeak bere 8.3
artikuluan
aurreikusi zuen
erregimen
berezia
deuseztatu
ondoren,
indarrean geratu
den erregimen
bakarra
erregimen
orokorra da: bi
hizkuntzen
erabilera
elkartua eskatzen
duena alegia.**

**Kataluniako
Estatutuari
buruzko 31/2010
Epaian,
Konstituzio
Auzitegiak
hizkuntza
erregimenaren
interpretazioari
parametro
berriak ezarri
dizkio.**

kontzeptua garatu zuen, 1989ko Hizkuntza Politikari buruzko Legeak aurrez ezarritakoa Estatutura eramanez. Estatutuaren 6.1 artikulua arabera, Katalana Kataluniako berezko hizkuntza bezala “bai herri-administrazioetan bai Kataluniako herri-komunikabideetan katalana ohiko hizkuntza eta lehentasuneko hizkuntza” gisa konfiguratu zen.

Konstituzio Auzitegiaren arabera, katalana lehentasuneko hizkuntza izango dela adieraztea konstituzioz-kontrakoa da, izan ere:

“el concepto de “preferencia”, por su propio tenor... implica la primacía de una lengua sobre otra en el territorio de la Comunidad Autónoma, imponiendo, en definitiva, la prescripción de un uso prioritario de una de ellas, en este caso, del catalán sobre el castellano, en perjuicio del equilibrio inexcusable entre dos lenguas igualmente oficiales y que en ningún caso pueden tener un trato privilegiado³⁵.”

Adierazpen horren ondorioz hizkuntza ofizialen arteko saihestezineko orekaren printzipioa deklaratu izan zen. Konstituzio Auzitegiaren arabera, saihestezineko orekaren printzipioa ofizialtasun bikoitzaren ondorioz sortutako printzipioa da. Berez, ofizialtasun bikoitzak dakarrena hizkuntza ofizialen arteko berdintasuneko egoera da, biak berdin baitira ofizial. Edozelan ere, planteamendu honek sorrarazten duen galdera da, Konstituzio Auzitegia ez ari ote den ofizialtasun planotik harantzago, administrazioetako barne erabileran sartzen ari.

Saihestezineko orekaren printzipioak bestelako zailtasun batzuk sorrarazten ditu, hala nola: Zein testuingurutan bilatu behar da saihestezineko berdintasuna? Hizkuntzen arteko orekaz jardutea zaila da indar etnolinguistiko horren desberdina duten hizkuntzez jarduterakoan. Testuinguruari dagokionez interesgarria da erreparatzea Giza Eskubideen Komiteak *Ballantyne, Davidson, McIntyre v. Canada*³⁶ ebazpenean Kanadako testuinguruan ingelesak zein frantsesak zuten garrantzia kontutan hartu zuen frantsesezko errotulazioa eskatzen zuen Quebec-eko araubidearen arrazoizkotasuna neurtzeko, ez Quebec-eko probintziaren barrera hizkuntza bata eta besteak duten egoera erlatiboa. Bigarrenez, saihestezineko orekaren printzipioa ez da neutrala, hizkuntzen errealtateak ez baitira berdinak ez hizlari kopuruaren ikuspegitik ezta hizkuntzek betetzen dituzten funtzioen ikuspegitik ere. Gaztelerarekin beren ofizialtasunak konpartitzen dituzten gainerako hizkuntzak, hizkuntza ez normalizatuak dira, hainbat gizarte funtzioetan erabilerabaxua baitute, hala nola justizian, harreman sozioekonomikoaren arloan, zineman, teknologia berrietan, komunikabideetan... Eta hirugarren zailtasuna

da jakitea nori dagokion frogatzea hizkuntzen arteko desoreka desagertu egin dela, eta beraz, berdintasuneko hizkuntza politika aplikatzeari ekin behar zaiola, babes bereziarekin (normalizazio politikarekin) bukatuz.

Konstituzio Auzitegiak saihestezineko orekaren printzipioa ezarri ondoren, berau malgutzeko bideak zabalik utzi zituen honakoa adieraziz:

“sin perjuicio... de la procedencia de que el legislador pueda adoptar, en su caso, las adecuadas y proporcionadas medidas de política lingüística tendentes a corregir, de existir, situaciones históricas de desequilibrio de una de las lenguas oficiales respecto de la otra, subsanando así la posición secundaria o de postergación que alguna de ellas pudiera tener”³⁷.

Ondorioz, Konstituzio Auzitegiak ezarritako doktrinari jarraiki, hizkuntza normalizazio prozesuak bide eman diezaioke berezko hizkuntzaren aldeko tratamendu asimetrikoari. Lehentasun edo neurri positibo horiek ez dute beren jatorria “berezko hizkuntzaren” kontzeptuan, normalizazio prozesuan baizik.

Hizkuntza ofizialen arteko saihestezineko orekak izaera juridikoa du; baina printzipio hori aplikatu behar da hizkuntza ofizialen egoera erabat desorekatua den testuinguru batean (arrazoi historiko, politiko, sozioekonomiko eta soziolinguistikoak tarteko)³⁸. Berezko hizkuntzaren ofizialtasun formala ez dator bat bere egoera errealarekin, ezta estatuko hizkuntza ofizialak duen estatus mailarekin ere. Berdintasun printzipioaren aurpegi formalaz haratago, bere aurpegi materiala aintzat hartuz, egoera desorekatuan dagoen hizkuntzaren aldeko neurriak hartzeko beharra dago. Hori da, hain zuzen ere, hizkuntza normalizazioa, bere helburua, ofiziala den berezko hizkuntzaren erabilera normalizatua lortzea delarik. Konstituzio Auzitegiak berezko hizkuntza sustatze aldera neurriak hartzea ahalbideratu du, betiere normalizazio prozesuen arabera. Neurri horiek test bikoitza gainditu beharko dute, arrazoizko neurriak izan beharko dira eta proportzionatuak bermatu nahi den helburuarekiko. Euskararen aldeko sustapen politika zehatzak Auzitegien kontrolpera eraman dira, proportzionaltasuna, berriz ere, “susmopean” jarritz, eta kasuz kasu aztertzeari bide emanez.

3.2 Jakinarazpenak hautatutako hizkuntzan jasotzeko eskubidea inolako formaltasun ez baldintzarik eskatu gabe

Konstituzio Auzitegiak, saihestezineko printzipioaz gain, beste muga bat ezarri dio hizkuntza normalizazio prozesuari, honakoa esanez:

**Konstituzio
Auzitegiaren
arabera,
saihestezineko
orekaren
printzipioa
ofizialtasun
bikoitzaren
ondorioz
sortutako
printzipioa da.
Berez,
ofizialtasun
bikoitzak
dakarrena
hizkuntza
ofizialen arteko
berdintasuneko
egoera da, biak
berdin baitira
ofizial.**

**Konstituzio
Auzitegiak
saihestezineko
orekaren
printzipioa ezarri
ondoren, berau
malgutzeko
bideak zabalik
utzi zituen.**

**Konstituzio
Auzitegiak
ezarritako
doktrinari
jarraiki,
hizkuntza
normalizazio
prozesuak bide
eman diezaioke
berezko
hizkuntzaren
aldeko
tratamendu
asimetrikoari.**

“las entidades públicas, instituciones y empresas a que el precepto se refiere, pueden utilizar la lengua catalana con normalidad, sin perjuicio de poder utilizar también con normalidad el castellano, en sus relaciones internas, en las relaciones entre ellas y en sus comunicaciones con los particulares, siempre que se arbitren los mecanismos pertinentes para que el derecho de los ciudadanos a recibir tales comunicaciones en castellano pueda hacerse efectivo sin formalidades ni condiciones que redunden para ellos en una carga u obligación que les constituya en la posición de sujeto activo en sus relaciones con la Administración pública”³⁹.

Argi dago, edozein dela administrazioek beren jarduera arruntetan eta barne prozeduretan baliatzen duten hizkuntza, interesdunen esku dagoen hizkuntza hautatzeko eskubidea bermatu behar dela. Edozelan ere, hitz horiekin pausu bat haratago egiten dela dirudi, interesdunak bere hizkuntza aukera zein den administrazioari adierazi behar ez diolakoan. Gero ikusiko dugunez, Euskadiko Udal Lege proiektuak ere klausula hori jaso du bere 6.3 artikuluan.

Adierazpen horren esanahia ulergaitza da. Konstituzio Auzitegiak bi hizkuntzen erabilpen elkartua inposatzen ez badu, eta horietariko bakar baten erabilera Konstituzioaren araberrakotzat jo bada, kontraesankorra dirudi batetik esatea, jakinarazpenak norbanakoek nahi duten hizkuntzan jaso behar dituztela, eta bestetik hizkuntza aukeraketa zein den adierazi behar ez dutela.

Konstituzio Auzitegiaren hitzak gaztelera aipatzen badute ere, planteamendua hizkuntza ofizialen arteko saihestezineko orekan oinarritzen denez, bi hizkuntzei aplikagarri zaizkiola ulertu beharko litzateke. Hori horrela izanik, Estatuko Administrazio periferikoak ere asmatu beharko luke zein den interesdunak erabili nahi duen hizkuntza, honek ezer ere adierazi gabe.

Troinu hori askatzeari begira zenbait parametro kontutan izan behar ditugu:

1. Argi dago hizkuntza bakar batean egindako jardueraren balioz-kotasuna ezin baldintza daitekeela beste hizkuntzaz lagunduta etortzeko beharrarekin.
2. Norbanakoak erabili nahi duen hizkuntzak ez du prozedura hizkuntza ezertan baldintzatzerik. Hori legegileak aukera dezakeen bideetatik bat baino ez da (Euskararen Legeko 6.2 artikulua bere-

ganatu duena, hain zuzen ere), baina Konstituzioaren arabera ez da bide bakarra. Prozedura hizkuntza norbanakoak erabiltzen duen hizkuntzarekin bat etor daiteke edo ez. Hots, barne erabilera eta kanpo erabilera bereiz daitezke. Administrazioak bere barne jardueretan zein hizkuntza erabili behar duen arau daiteke. Aldiz, kanpo erabilpenari dagokionez, interesdunen hizkuntza aukeraketa errespetatu behar da. Izatez, legearen indarrez, Estatuko Administrazioaren esparruan prozedura hizkuntza eta jakinarazpenetarako hizkuntza ez dute beti bat etortzen. Legeek ez dute bi hizkuntzen erabilera orekatua eskatzen. Adibidez 30/1992 Legeko 36 artikulua indarrez, Estatuko administrazio periferikoak izapidetzen dituen espedienteak hizkuntza bat bakarrean gauzatu behar dira, dela gaztelera, dela euskara. Prozeduretan bi alderdi badira eta hizkuntza ofizial desberdina erabiltzen badituzte, espedientea ez da bi hizkuntzetan izapidetuko, gaztelera baizik, eta jakinarazi beharrekoak bakoitzak hautatuko hizkuntzan gauzatu behar da.

3. Auzitegiak “*carga*” hitza erabiltzen duenean, zentzu indartsuan erabiltzen du (ez dio erreferentziarik egiten ezerosotasun arinei). Hots, interesdunak jakinarazpena gaztelera jaso nahi baina administrazioak euskaraz helarazten badio, ezerosotasun bat sor daiteke, baina zalantzarik da hori kargatzat har genezakeen.

4. Kanpo harremanei dagokionez, Administrazioak adi egon beharko du interesdunek erabili nahi duten hizkuntza zein den asmatzeko. Eta hori interesdunek burutzen dituzten hizkuntza jardueri erreparatzea eskatzen du, norbanakoen hizkuntza erabilera horiei garrantzia emanez.

4. UDAL LEGE PROIEKTUAK ZEIN BERRIKUNTZA DAKAR?

I

Udal Lege proiektuak hizkuntzari buruzko aipamenak honako artikulua hauetan jaso ditu: 6 (Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeek hizkuntza ofiziala), 7 (Euskararen erabilerarekiko udal eskumenak), 17 (Udalerrien eskumen propioak) eta 41 artikulua (Udalerriko auzotarren eskubideak) baita 5 Xedapen Gehigarrian ere (Estaturako gaikuntza duten funtzionarioak). Jarraian, euskararen erregimen juridiko osatzera datozen lege-erazpen horiek aztertuko ditugu.

**Edozein dela
administrazioek
beren jardura
arruntetan eta
barne
prozeduretan
baliatzen duten
hizkuntza,
interesdunen
esku dagoen
hizkuntza
hautatzeko
eskubidea
bermatu behar
dela.**

**Udal lege
proiektuak
berrikuntza
nabarmen bat
proposatzen
digu. Hots,
Euskararen
Legeak, defektuz
(edo besterik
ezean) jasotzen
duen elebitasun
simetrikoa
malgutzen da,
hizkuntza bat
bakarraren
erabilpenari bide
emanez.**

**Legeko 6.1
artikuluaren
euskara zerbitzu
hizkuntzatzat eta
baita lan
hizkuntzatzat
hartzen da.**

4.1 Euskara hizkuntza ofiziala izateaz gain “berezko hizkuntza” ere bada

Hizkuntza gaiari dagokionez Udal lege proiektuak berrikuntza nabarmen bat proposatzen digu. Hots, Euskararen Legeak, defektuz (edo besterik ezean) jasotzen duen elebitasun simetrikoa malgutzen da, hizkuntza bat bakarraren erabilpenari bide emanez.

Legeko 6.1 artikuluan euskara zerbitzu hizkuntzatzat eta baita lan hizkuntzatzat hartzen da, erabilera normal eta orokorrekoa hain zuzen ere. Paragrafoak, jarraian, norbanakoei bermatzen die hizkuntza ofizialetatik bat hautatzeko eskubidea Administrazioa zuzentzerakoan (aurpegi aktiboa), eta neurri berean toki administrazioei betebeharrak ezartzen zaie: hiritarrak aukeratzen duen hizkuntzan harrera hartzekoa (aurpegi pasiboa), horretarako neurriak hartu behar dituztela agertuz. Ezarpen horiek Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziari egokitutakoak dira⁴⁰.

Interesgarria da zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza terminoak legera ekarri izana. Euskara zerbitzu hizkuntzaz hitz egiten denean, auzokideei udal zerbitzuak eskaintzeko hizkuntza izango dela agertu nahi da (hizkuntzen kanpo erabilera barne hartuko lukeena - *ad extra*); aldiz, lan-hizkuntzatzat hitz egitean, administrazio barneko prozedurei erreferentzia egiten zaie (*ad intra*). Ezaguna denez, Konstituzio Auzitegiko jurisprudentziaren arabera, administrazioetako barne-hizkuntza arau daiteke.

Hizkuntza ofizialtasun kontzeptuan oinarri hartuz, 6 artikuluko lehen paragrafoak udalek, orokorrean, balia dezaketen hizkuntzak aipatzen ditu. Artikuluaren oinarria “ofizialtasuna” izanik, bi hizkuntzei tratamendu simetrikoa edo baliokidea eskaintzen diela uler daiteke. Hots, euskara, hizkuntza ofiziala denez, udal-zerbitzu-hizkuntza zein lan-hizkuntza izango da, erabilera normala eta orokorrekoa. Halere, gaztelera ere hizkuntza ofiziala izanik, zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izan ahalko da euskal toki administrazioetan. Beste modu batera adierazita, bi hizkuntza ofizial izanik, udalek hizkuntza bat zein bestea baliatu ahalko dute barne hizkuntzatzat zein zerbitzu hizkuntzatzat.

Hori horrela izanik, lege proiektuak hizkuntza sisteman jauzia dakarrela esan daiteke, gaur egungo sistema elkartutik abiatuz (bi hizkuntzen erabilera elkartua eskatzen duen sistematik abiatuz hain zuzen ere) *bereizigabeko hizkuntzen erabilera sistema batera igarotzea dakar*, zeinetan hizkuntza bat bakarraren erabilera legezko bihurtzen baiten. Bi hitzetan, udalek hizkuntza batean zein bestean jardun ahalko dute. Artikuluak termino

inperatiboak erabiltzen baditu ere “*sera lengua de servicio y lengua de trabajo*”, bi hizkuntzei tratamendu simetrikoa eskaintzen diela ulertu behar da, eragin horiek ofizialtasunari lotu baitzaizkio lege proiektuan.

Lan-hizkuntzari dagokionez zalantza bat sortzen da. Udal lege proiektua euskara (zein gaztelania) lan-hizkuntzat hartu ahalko direla aurreikusten badu ere, ez dago argi administrazio prozeduretan parte hartzen duten interesdunek prozedura-hizkuntza zein izan behar den baldintzatzerik ote duten izango. Zalantzaren jatorria Euskara Normalizaziorako Legeko 6.2 artikulutik ondorioztatzen da, bertan agertzen baita, prozeduretan parte hartzen duten interesdunek erabiltzen duten hizkuntzan izapidetu beharko dela prozedura osoa. Euskararen Normalizaziorako Legea toki-administrazioetan ere aplikagarria denez, ez dago argi Udal Lege proiektuak Normalizazio Legeko 6.2 artikulua indargabetzen ote duen, udalei lan-hizkuntza ezar dezaten ahalmen osoa eskainiz, edo aldiz, udalen ahalmena 6.2 artikulua bitartez mugatuta izango ote den. Nire ustez, Udal Lege proiektuak lan-hizkuntzaz diharduenean modu orokorrean jarduten duenez⁴¹, Normalizazio Legeko 6.2 artikuluari kalterik egiten ez diola ulertu beharko genuke, Euskararen Normalizazio Legea aldatzen ez den bitartean behintzat.

Udal Lege proiektuko 6.1 artikulua zenbait *interpretazio arazo* sortzen ditu. Lehenbizi, zaila da ulertzen hizkuntza bakar baten erabilerari bide ematea, baina neurri berean inolako gidalerrorik ez jasotzea hizkuntza hori zein izan daitekeen asmatzeko. Legeak gidalerrorik ezartzen ez dituenek, udalek, beren autonomia baliatu ahal izango dute beren zerbitzu- eta lan-hizkuntzak ezartzeko (prozedura hizkuntzari buruz esandakoa kontutan hartuz, noski). Legeak aukerak baino aipatzen ez dituenek Udalen esku izango da lan-hizkuntza zein izango duten arautzea.

Hori hala izanik, galdera bat sortzen da: Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan *gaztelera izan daiteke normaltasunez erabil daitekeen hizkuntza?* Argi dagoena da lege proiektuaren arabera, Udaletan erabilera normal edo erabilera orokorreko hizkuntza, bata edo bestea izan daitekeela.

Azpimarratzekoa da “*berezko hizkuntzaren*” kontzeptua⁴² ez dela garatu lege proiektuan, ez baitzaio inolako eraginik lotu erabilerari dagokionez behintzat.

Bi hizkuntzak ofizial izanik, udalek hizkuntza batean zein bestean buruturiko jarduerak baliozkoak izango dira. Baina besterik da, bi hizkuntza ofizialetatik zein behar duen izan ohiz, normaltasunez edo orokorki

Udalek hizkuntza batean zein bestean jardun ahalko dute.

Legeak aukerak baino aipatzen ez dituenek Udalen esku izango da lan-hizkuntza zein izango duten arautzea.

**Bi plano horiek
desberdindu
beharko lirateke,
ofizialtasunaren
planoa eta
berezko
hizkuntzaren
planoa, ez baitute
hedapen juridiko
berdina.
Ofizialtasunak
dakarrena da
hizkuntza
horretan
burututakoa
juridikoki eragin
juridikoak
sortuko dituela.
Berezko
hizkuntzaren
planoa, aldiz, ez
da eragin
juridikoetara
hedatzen,
normalean
erabili daitekeen
hizkuntza zein
den justifikatzera
baizik.**

erabiliko dena. Nire ustez artikulua ez ditu behar bezala desberdintzen batetik, hizkuntza ofizialtasunari lotu behar zaizkion eragin juridikoak (eraginkortasun juridikoari lotzen zaizkionak) eta bestetik, “berezko hizkuntzaren” kontzeptuari lotu ahal zaizkion eragin juridikoak (ohiz, normaltasunez edo orokorki erabili beharreko hizkuntza). Artikuluaren idazkerak bi kontzeptu horiek (ofizialtasuna eta berezko hizkuntza) nahasten dituela iruditzen zait.

Nire ustez, bi plano horiek desberdindu beharko lirateke, ofizialtasunaren plano eta berezko hizkuntzaren plano, ez baitute hedapen juridiko berdina. Ofizialtasunak dakarrena da hizkuntza horretan burututakoa juridikoki eragin juridikoak sortuko dituela. Berezko hizkuntzaren plano, aldiz, ez da eragin juridikoetara hedatzen, normalean erabili daitekeen hizkuntza zein den justifikatzera baizik.

Bigarren plano hau, berezko hizkuntzarena alegia, Lege proiektuak garatu ez duen arren, juridikoki bidezkoa litzateke “berezko hizkuntzaren” deklarazioari nolabaiteko ondorio juridikoak lotzea, betiere Konstituzio Auzitegiak ezarritakoa kontutan hartuz. Hots, ez legoke esaterik berezko hizkuntza (gure kasuan euskara) udal funtzionamenduko lehentasunezko hizkuntza izango denik, baina bai, ordea, *lan-hizkuntza normala eta orokorrekoa* izango dela, edo behintzat, udalek lehentasunez sustatuko dutela euskara lan-hizkuntza normala eta orokorrekoa bihur dadin, betiere hiritarren hizkuntza aukeraketa eskubidea errespetatuz.

Hori da, hain zuzen ere, Kataluniako Udal Legeak baliatzen duen metodoa: ofizialtasuna eta berezko hizkuntza desberdindu eta bakoitzari ondorio juridiko desberdinak lotuz (Kataluniako Udal Legeko 5 artikulua).

Proposa daitekeena da, beraz, ofizialtasunaren plano eta berezko hizkuntzaren plano desberdintzea. Azken honek euskal toki administrazioetan erabilera normaleko hizkuntza zein behar lukeen izan ezarriko zukeelarik, sustapenaren norabidea argi definituz. Halere, irizpide hori osa liteke Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren faktorearekin. Hots, udal-erriaren egoera soziolinguistikoa kontutan hartu ahalko litzateke zehazteko zein izango den udaleko lan-hizkuntza eta erabilera normaleko zerbitzu-hizkuntza. Legeak faktore soziolinguistikoa bereganatu izan balu, horrek bide emango lioke erritmo desberdinak ezartzeari (udalaren egoerari egokituz) baina norabide orokorra argi ezarri.

Faktore soziolinguistikoa integratu izana beste abantaila bat izango luke, udalek lan- eta zerbitzu-hizkuntza ezartzerakoan proportzional-

tasuna bermatze aldera. Bide horretan Udal legea garatuko zukeen erregelamenduz posible litzateke auzotar euskaldunen portzentajearen arabera irizpideak ezartzea lan- eta zerbitzu-hizkuntza garatzeari begira graduazio sistema bat aurreikusiz.

4.2 Barne dokumentuak euskaraz: guztiak?

Udal Lege proiektuko 6.2 artikulua, funtsean, zenbait dokumentu euskara hutsez landu daitezkeela adierazi ondoren *bi muga* ezartzen dizkio euskarazko funtzionamenduari: zinegotziren batek euskara ez jakitea eta Euskararen Normalizaziorako Legeak aitortzen dituen esku-bideak errespetatzea. Halaber, administrazio batetik bestera dokumentuak euskaraz helarazi ahalko direla aurreikusten du. Gatozen artikulua horrek arautzen dituen elementuak aztertzea:

Aurreratu bezala, 6.2 paragrafoak *zenbait udal dokumentu euskaraz (euskara hutsez)* idatz daitezkeela agertzen digu: deialdiak, gai-zerrendak, mozioak, boto partikularrak, akordio proposamenak, informazio batzordeetako irizpenak, akordioak eta aktak. Dokumentu horiek dira 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Entitate Lokalen Organizazio, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzkoak, bere 86.1 eta 110.2 artikuluetan agertzen dituen dokumentuak, “akordioak” gehituta. Dokumentu horiek euskaraz idazteko aukera termino potestatiiboetan edo hautazko eran konfiguratu da, euskaraz bakarrik lantzeko bide emanez.

Paragrafoaren idazkerak zenbait *zalantza* planteatzen ditu:

a) Lehen, dokumentuen zerrenda hori itxia edo irekia (erakusbi-dezkoa) ote den argitzea da. Dokumentu horiek baino ezin daitezke euskara hutsez landu? Gainera dokumentu guztiak gaztelaraz idatzi behar dira? Proiektuaren idazkerari begira, badirudi dokumentu horiek baino ezin daitezkeela euskara hutsez idatzi. Gauza argia da aipatu Errege Dekretuak soilik dokumentu horiek aipatzen dituela euskaraz idazteko ahalmena aurreikusiz (Erkidegoko legeriaren arabera) baina horrek ez du esaterik nahi bestelako dokumentuak (administrazio espedienteak osatzen dituztenak) euskaraz idatzi ezin daitezkeenik, hala nola idazkariaren txostenak, kontu-hartzaileak lantzen dituenak, proiektu teknikoak, pleguak, ofizioak... administrazio espedienteak osatzen dituzten dokumentu guzti-guztiak.

Ez dago inolako arazo juridikorik proiektuak aipatzen ez dituen gainerako dokumentazio administratiboa euskaraz lantzeko. Berriz

**Halere, irizpide
hori osa liteke
Euskal Herriko
egoera
soziolinguistikoa
ren
faktorearekin.
Hots,
udalerriaren
egoera
soziolinguistikoa
kontutan hartu
ahalko litzateke
zehazteko zein
izango den
udaleko lan-
hizkuntza eta
erabilera
normaleko
zerbitzu-
hizkuntza.**

**Udal Lege
proiektuko 6.2
artikuluak, bi
muga ezartzen
dizkio
euskarazko
funtzionamen-
duari:
zinegotziren
batek euskara ez
jakitea eta
Euskararen
Normalizaziorako
Legeak aitortzen
dituen
eskubideak
errespetatzea.**

ere gogoratu behar dugu Estatuko Administrazioaren kasuan 30/1992 Legeko 36 artikulua araberak, espediente osoak euskara hutsez zein gaztelera hutsez lantzeko agindua dagoela⁴³. Hots, espedienteak osatzen dituzten dokumentu guzti-guztiak euskaraz idatzita izan behar dira Estatuko administrazioak izapidetzen dituen espedienteetan, interesdunek euskara erabiltzen badute. Hori horrela izanik, deigarria litzateke Estatuko Administrazio periferikoan euskaraz jarduteko aukera zabalagoak izatea gure udalerrietan baino, eta muga hori gure udal legeak ezartzea.

Gainera, 6 artikuluko lehen paragrafoan euskara lan hizkuntza izango dela esatea, eta bigarren paragrafoan euskaraz landu daitezkeen dokumentuen zerrenda itxia ematea erabat kontraesan-korra da. Zerrendaren bukaeran klausula ireki bat gehitzea izan daiteke irakurketa mugakor hori gainditzeko bidea

Egon litezkeen interpretazio okerrak errotik desagerrarazteko, aipatu klausula irekiarekin batera, ofizialtasunaren hedapen juridikoa agertzen duen esaldi batekin paragrafoa abiatzea proposa daiteke. Gogora dezagun Konstituzio Auzitegiak adierazitakoari jarraiki, hizkuntza ofizialean burututako administrazio egintza eta jarduerak, baliozkoak eta erabat eraginkorrak dira, hizkuntzari dagokionez behinik behin⁴⁴.

b) Bigarrenik, lege proiektuak aipatzen dituen dokumentuak euskaraz idatz daitezkeela ezartzen da, baina ez dago argi nori dagokion hori horrela izan dadila agintzea. Interesgarria izan zitekeen udal Osoko Bilkurari eskumen hori formalki aitortzea, Ordenantza bitartez edo udalerriko hizkuntza Plangintzaren bitartez. Argi dagoena da, udal lege proiektuak hizkuntzen barne erabilera arautzeko eskumena modu inplizituan aitortzen diela udalerriei. Hots, Udalek ezar dezakete barne funtzionamendua (edo lan-hizkuntza) euskara izan dadila.

c) Hirugarrenik, aipatu dokumentu horiek euskaraz landu daitezen bi baldintza eskatzen dira. Lehen baldintza da udal korporazioko kideen euskara gaitasunari lotutakoa. Euskara erabiltzerik ez da izango udal korporazioko norbaitek zilegitzat jotzen den moduan euskara ezagutzen ez duela alegatzerik badu.

Ezarpen hori deigarritzat jo daiteke bi zioz: batetik, bere oinarri juridikoa ez dagoelako argi eta, bestetik, gaurko egunera arte

euskaraz jardun duten udalerrietan artikuluko honek konpontzera datorren arazoa edo ez da planteatu, edo planteatu izan bada konpontbidean jarri da beharrezkoak diren mekanismoak artikulatuz. Bi hitzetan, zalantzarik da berme horren ezinbestekotasuna, eta neurri berean, euskararen normalizazio osoari lagungarri zaionik zalantzarik da.

Proiektuak ezarritakoari jarraiki, Osoko Bilkurako kide den zinegotziren batek euskara ez badaki, ez da zilegi izango euskara hutsezko dokumentu edo funtzionamendu idatzirik udalean. Argi dago artikuluko horrek zinegotzien *ius in officium* bermatu nahi duela baina, eskubide hori legez konfiguratutako eskubidea dela gogoratu behar dugu⁴⁵. Hauteskunde erregimenarekin zerikusirik duen neurrian, legezko konfigurazioa lege organikorako erreserbapean izango da, ez bakarrik oinarritzeko eskubide bati eragiten diolako (Konst. 23 art), baita hauteskunde erregimenari eragiten diolako ere (Konst. 81).

Udal Lege proiektuaren artikuluko hori zehaztugabezia dela iruditzen zait, euskarazko funtzionamendu normala errotik baztertzeko edo debekatzeko haina. Alde horretatik, zenbait zalantza sorrarazten ditu: adibidez, zer ulertu behar dugu euskara ez jakiteaz? Euskaldun pasiboek ere ba al dute alegatzerik euskararik ezagutzen ez dutela, eta euskaraz eginez gero bere parte-hartze eskubidea urratzen dela? Euskara ezagutzen ez dela frogatzea gauza zaila izan daiteke interesdunak bere ez-ezagutza agertzeko interesa duenean.

Bestalde, zinegotzi erdaldunak eragotz dezake udaleko euskarazko funtzionamendua edozein dela euskarazko dokumentuaren jatorria? Edo aldiz, bera kide den Osoko Bilkurari onartzea dagokion dokumentuetara soilik hedatuko litzateke muga hori? Galdera hauek ez dute erantzun argirik proiektuaren idazkeran.

Edozelan ere, proiektuaren idazkerari jarraiki, euskarazko dokumentazioa euskara hutsez ez da egiterik izango korporazioko kideren batek euskara ez dakiela zilegitasunez alegatzerik duenean (“que pueda alegar *válidamente* el desconocimiento del euskera”). Euskara ez jakitea ez dirudi arrazoi nahikoa denik. Ez jakintasun hori bidezketasunez alegatu beharko da. Hori horrela, ondoko zalantza sortzen zaigu: *euskararen ezagutza-eza zein kasutan alega daiteke zilegitasunez?* Euskara ezagutzeko betebeharrak orokorrik ez badago ere, zeharka euskara ezagutu beharreko hizkuntza da beren ikasketak 1982 urteaz geroztik Euskal Autonomia Erkidegoan burutu

**Aurreratu bezala,
6.2 paragrafoak
zenbait udal
dokumentu
euskaraz
(euskara hutsez)
idatz daitezkeela
agertzen digu.**

**Ez dago inolako
arazo juridikorik
proiektuak
aipatzen ez
dituen gainerako
dokumentazio
administratiboa
euskaraz
lantzeko.**

dutenen guztientzat. Euskara ezagutzeko zeharkako betebeharrak hori ofizialtasunean eta Euskararen Normalizazio Legean oinarritzen da. Konstituzio Auzitegiak esan duenez, *“del reconocimiento de la co-oficialidad del castellano y de la lengua propia de una Comunidad se deriva el mandato para los poderes públicos, estatal y autonómico, de incluir ambas lenguas oficiales como materia de enseñanza obligatoria, a fin de asegurar el derecho, de raíz constitucional y estatutaria a su utilización”*⁴⁶. Euskararen Normalizazio Legeak, bere, 17 artikuluan hezkuntza sistemak euskararen “ezagutza praktikoa” bermatu behar duela agertzen du⁴⁷. Hori horrela, uler daiteke bere ikasketak Autonomia Erkidegoan edo Nafarroako eremu euskaldunean burutu duten zinegotziek ez luketela euskara ezagutzen ez dutela zilegitasunez alegatzerik⁴⁸. Argi dagoena da euskara ezagutzen ez dela alegatzea ez dela nahikoa.

Ezarritako hizkuntza muga hori euskarari bakarrik zaio aplikagarri. Kontutan izan behar dugu Espainiako zuzenbidean zinegotzi izateko hizkuntza baldintzarik ez badago ere, zinegotziek gaztelera dakitela dioen presuntzioa indarra galduz joan behar dela. Izan ere gaztelera jakiteko Konstituzio betebeharrak ez baitaie aplikagarri zinegotzi izan daitezkeen pertsona guztiei. Hori da Europar Erkidegoko kideen kasua, udal hauteskundeetan hautesle zein hautagai izateko eskubidearen jabe direnak baina gaztelera ezagutzeko betebeharrak ez zaie aplikatzen. Kasu horiei begira ez dut uste logika askorik lukeenik ezartzea gaztelera ezin izango dela erabili. Arrazoi berdina dela bide, proiektuak jaso duen baldintza hori ken zitekeen.

Euskarazko funtzionamendua errotik baztertu gabe, udal ba-koitzean zinegotzi guztien eskubideak bermatze aldera, hizkuntzaren ezagutza-eza gainditzeko mekanismoak aurreikus daitezke. Hori horrela izanik, udal Lege proiektuak euskarazko funtzionamendu normalizatuari ezarri dion muga hau bertan behera utz zitekeen.

d) Udal dokumentuak euskaraz idatzi ahalko direla adierazi ondoren, 6.2 artikulua bigarren baldintza bat ezarri du, Euskararen Legeari erreferentzia eginez (*“sin perjuicio de lo previsto en la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica normalización del uso del euskera”*). Hots, euskara hutsezko dokumentuen ekoizpenak Euskararen Legeak ezartzen duenari kalterik egin gabe aplikatuko dela adierazten da. Euskararen Legeari buruzko erreferentzia hori ez da argia. Nahasgarria suerta daiteke Euskararen Legeak idazkera elebiduna ezartzen

baitu, interesdunek hizkuntza bakar baten erabilera eskatzen ez dutenean salbu, edota administrazio-prozeduretako kide diren interesdunek euskara edo gaztelera hautatzen dutenean salbu.

Erreferentzia horren benetako helburua zera izan daiteke: euskara hutsez landutako dokumenturen bat interesdunen bati jakinarazi behar zaionean hizkuntza aukeraketa bermatuko dela ohartaraztea. Baina erreferentziaren benetako helburua hori izanik, hobe litzateke, hasteko, 6. artikuluko lehen paragrafoari erreferentzia egitea, Euskararen Legeari erreferentziarik egin gabe. Edozelan ere, komeniko litzateke argi agertzea udalak, bere barne funtzionamenduan, euskaraz sortzen dituen dokumentuak erabat baliozkoak izango direla; dokumentu horiek norbanakoei jakinarazi behar bazaizkie hauen hizkuntza aukeraketari egon beharko zaio, baina horrek ez du ezertan euskarazko ekoizpen normala baldintzatzerik. Bi hitzetan, ongi bereizi behar da barne funtzionamendua (lan-hizkuntza) eta jakinarazpenetarako hizkuntza (kanpo harremanetako hizkuntza), biak ez baitira ezinbestean bat etorri beharrik.

e) Paragrafo honekin bukatzeko, esan behar da erabat zilegi dela udalek onartzen dituzten erabakien kopiak edo laburpenak, zein aktak eta akordioak Estatuko⁴⁹ eta Erkidegoko administrazioa euskara hutsez bidaliko direla ezartzea, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legeko (TEOL) 56 artikulua galdatzen duen bete-beharra betetze aldera. Txalogarria da Udal Lege proiektuak aukera horren zilegitasuna espresuki aintzat hartu izana, Euskararen Normalizaziorako Legearen 8. artikulua zurruntasuna malgutuz.

Azkenaldian, gai hau gatazkatsu gertatu da, Gobernu Eskuordeak errekurtsioak jartzeari ekin baitizkio euskara hutsez bidaltzen zaizkion udal akten kopien aurka, gazteleraz edo bi hizkuntzetan bidali ez zaizkiola argudiatuz. Epairen batek Gobernu Eskuordearen errekurtsioa aintzat hartu badu ere⁵⁰, oinarri juridiko nahikorik bada administrazio batetik bestera euskaraz bidaltzen diren dokumentuen baliozkotasuna eta eraginkortasuna funtsatzeko. Hori hala dela uste dugu honako zio hauetan oinarrituz:

— Lehenbizi, Administrazioek hizkuntza ofizialetan jasotako dokumentuak onartzeko beharra dute, itzulpena eskatzerik ez dutelarik. Norbanakoak dira hizkuntza aukeratzeko eskubidearen jabe direnak, ez Administrazioak. Administrazioek hizkuntzekiko betebeharrak dituzte, ez eskubiderik. Administrazioek jasotzen

Euskarazko funtzionamendua errotik baztertu gabe, udal bakoitzean zinegotzi guztien eskubideak bermatze aldera, hizkuntzaren ezagutza-eza gainditzeko mekanismoak aurreikus daitezke. Hori horrela izanik, udal Lege proiektuak euskarazko funtzionamendua normalizatuari ezarri dion muga hau bertan behera utz zitekeen.

**Esan behar da
erabat zilegi dela
udalek onartzen
dituzten
erabakien kopiak
edo laburpenak,
zein aktak eta
akordioak
Estatuko eta
Erkidegoko
administraziora
euskara hutsez
bidaliko direla
ezartzea.**

dituzten dokumentuak, hizkuntza ofizialetatik batean landuta badaude, dokumentu horiei eraginak aitortzeko beharra dute.

— Bigarrenez, Eskualde edo Eremu Urriko hizkuntzei buruzko Europako Karta⁵¹, bere 9.2.a) artikuluan honako konpromiso hau jaso du: *“no rechazar la validez de los documentos jurídicos elaborados dentro del ámbito del Estado por el solo hecho de que estén redactados en una lengua regional o minoritaria”*.

— Eta hirugarrenez, azpimarratu behar da Konstituzio Auzitegiak arazo hau, honezkero, argitu duela 30/1992 Legeko 36.3 artikuluen aurkako errekurtoa ebatzi zuenean. Artikulu horren jatorrizko idazkerak gazteleraz besteko hizkuntza ofizialetan idatzitako dokumentuak Autonomia Erkidegotik kanpora bidali behar zirenean gazteleraz itzultzeko beharra ezarri zuen. Idazkera hark ez zuen kontutan hartzen dokumentua jaso behar zuen administrazioan dokumentuaren hizkuntza, hizkuntza ofizial izan zitekeela. Halako kasuetan gaztelerara itzultzeko beharrik ez legoke izango. Hona hemen Konstituzio Auzitegiak esandakoa: *“Exigir en estos casos la traducción de los documentos supone desconocer la existencia de una lengua que en esa Comunidad Autónoma tiene igualmente carácter oficial, lo que constituye una vulneración del art. 3.2 C.E. y de los correlativos preceptos estatutarios en el que se reconoce el carácter oficial de otras lenguas distintas al castellano”*⁵². Euskal Autonomia Erkidegotik Nafarroako administrazioren batera euskaraz bidaltzen diren dokumentuak itzultzeko beharrik ez badago, Lekeitioko Udalak Bilbon kokatuta dagoen Estatuko Administraziooko egoitzara euskaraz bidaltzen dizkion dokumentuak itzultzeko beharrik ez da izan behar⁵³.

Ondorioz, euskaraz landu diren dokumentuak, bere horretan bidali ahalko dira EAEan kokatuta dauden administrazioetara eta baita Nafarroako Foru Erkidegoko administrazioetara ere (zonalde ez-euskaldunean daudenei ezik). Artikuluak ez du argitzen, ordea, bi hizkuntzetan idatzi diren dokumentuak euskaraz bidal ote daitezkeen. Horri begira interesgarri gerta daiteke udal Osoko Bilkurari ahalmena aitortzea bi hizkuntzetan landu diren dokumentuak beste administrazioei zein hizkuntzetan bidali behar zaizkien erabaki dezan, betiere udal hizkuntza plangintzarekin bat.

4.3 Lan hizkuntza eta komunikazioetarako hizkuntzak

6.3 artikulua, funtsean, bi gauza esaten ditu: batetik, toki administrazioek hizkuntza ofizialeetatik bat bakarra erabil dezaketela, eta bestetik, toki administrazioek hiritarrei komunikazioak helarazi behar dizkietenean, mekanismoren bat aurreikusi behar dutela komunikazio horiek hiritarrak erabili nahi duen hizkuntza ofizialean helarazteko, betiere interesdunari kargarik edo betebeharrak ekarri gabe, hots, hiritarrari galdetu gabe zein hizkuntzatan jaso nahi duen jakinarazpen hori. Paragrafo honek idazkera konplexua du, Konstituzio Auzitegiak baliatu zituen hitzak bildu dituelarik. Idazkera 31/2010 KA Eren 21 ZOtik hitzez hitz hartuta dago.

Lehen zatiak hizkuntza bat bakarraren erabilpena aintzatesten duen neurrian (*emplear una de las dos lenguas oficiales*) argi dago udalerriek hizkuntza ofizial bata zein bestea erabil dezaketela. Hots, aurreratu bezala, toki administrazioen esparruan bereizi gabeko erabilera (edo erabilera indistintoan oinarritzen den) sistema berri bat jarriko litzateke indarrean. Hala izanik, Euskararen Legeko 8.2 artikulua ez litzateke aplikagarria izango toki Administrazioen esparruan, euskara hutsezko jarduerak zein gaztelera hutsezko jarduerak zilegi bihurtuz (interesdunak erabiltzen duen hizkuntza edozein delarik). Beste modu batera adieraziz, edozein dela interesdunak baliatu nahi duen hizkuntza, udal-administrazioak hizkuntza batean zein bestean jardun ahal izango dute. Interesdunaren hizkuntza aukeraketa, kanpo eraginak izango lituzke, baina ez barneari begira. Udal Lege proiektuaren arabera euskara lan hizkuntza izan ahalko da, betiere norbanakoen hizkuntza eskubideak errespetatuz kanpo harremanetan. Arestian esan bezala, planteamendu honek Euskararen Legeko 6.2 artikuluan oztopo bat aurki dezake, espediente edo prozeduretan parte hartzen duten pertsonen aitortzen baitzaie prozedura-hizkuntza zehazteko ahalmena. Hori horrela izanik, Udal Lege proiektuaren planteamendua eraginkor bihurtzeko, Euskararen Legeko 6.2 artikulua berariaz indargabetzea komeniko litzateke.

Legearen norabidea sendotuta geratzen da Udal Lege proiektuaren 7. artikuluko 7 paragrafoari erreparatuta, non administrazioen arteko harremanak hizkuntza batean edo bestean gauza daitezkeela agertzen baiten. Harreman horietan hizkuntza aukeraketarik ez da izango, hizkuntza eskubideak norbanakoei bakarrik aitortu zaizkielako.

Paragrafo honek idazkera argirik ez badu ere, beste irakurketa bat onartzen duelakoan gaude: bi hizkuntza erregimen desberdin aurreikusten dituela interpretatu liteke. Batetik, erregimen orokorra legoke, elebidun

**Udal Lege
proiektuaren
arabera euskara
lan hizkuntza
izan ahalko da,
betiere
norbanakoen
hizkuntza
eskubideak
errespetatuz
kanpo
harremanetan.**

**Udal Lege
proiektuaren
planteamendua
eraginkor
bihurtzeko,
Euskararen
Legeko 6.2
artikulua
berariaz
indargabetzea
komeniko
litzateke.**

erakoa, eta bestetik euskararen erabilera normala edo orokorra babestuko lukeena. Hau balitz paragrafoaren benetako helburua, idazkera argiago bat proposa daiteke, euskarazko funtzionamendu normalari esanbidezko erreferentzia (berariazkoa) eginez paragrafoaren lehen zatian. Edota, horrez gain, udalek euskara behintzat erabiliko dutela adieraziz.

Bigarren zatiari dagokionez (*en sus comunicaciones con los particulares, deberán arbitrar los mecanismos pertinentes para que el derecho de los ciudadanos a recibir tales comunicaciones en la otra lengua oficial pueda hacerse efectiva sin formalidades ni condiciones que comporten a los ciudadanos una carga u obligación*), artikulua Konstituzio Auzitegiak bere 31/2010 Epaian esandakoa errepikatzeraz dator. Gorago esan bezala, kontraesankorra gerta daiteke interesdunaren hizkuntza hautaketa errespetatzeko beharra ezartzea eta neurri berean interesdunari aukera hori zein den ez esateko eskubidea aitortzea.

Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzia hau Katalunian eraginak izaten hasia da. Zentzu horretan, Kataluniako Auzitegi Nagusiak zenbait Epaietan honako esan du:

“es la Administración la que elige inicialmente y no el ciudadano que es el titular del derecho de opción lingüística. En consecuencia, deben anularse los preceptos citados por cuanto introducen un régimen de opción lingüística que coloca al ciudadano en una posición innecesariamente pesada”⁵⁴.

Funtsean Udal Lege proiektuko 6.3 paragrafoak Administrazioari bete-behar bat ezartzen dio: euskara zein gaztelera erabili nahi duen hiritarrari bere hizkuntza eskubidea balia dezan erraztasunak eman diezaiola. Administrazioak interesdunak erabiltzen duen hizkuntzari buruzko zantzurik baditu, hizkuntza hori erabili beharko du honekin harremanak izateko, baina zantzurik ez badu, artikulua ez du bi hizkuntzak erabiltzeko beharrik inposatzen, bitartekoak ezarri behar dituela agindu baino ez du egiten.

Bitarteko horiek zein izan daitezkeen ez dago argi. Administrazioak baldin badaki interesdunak zein hizkuntza erabiltzen duen, hizkuntza hori erabili beharko du. Baina, zer gerta daiteke Administrazioak asmatzen ez duenean (edo gaziki interpretatzen duenean) zein den hiritarraren aukera linguistikoa?

Galdera horrek ez du erantzun errazik. Hiritarrari helarazi zaion komunikazioak hizkuntza ofizial bat baliatu duenez, juridikoki administrazio jardura baliozkotzat hartu beharko genuke, baina jakinarazpenak

akats formal bat izango luke, beraz egintza eraginkortasunik gabekoa litzateke. Gauzak horrela, bi irtenbide baino ez lirateke egongo:

- lehena, interesdunak Administrazioari agertu beharko lioke zein den erabili nahi duen hizkuntza ofiziala, eta komunikazioa hizkuntza horretan jakinarazi dakiola eskatu,
- eta bigarrena, jakinarazpen okerrari geldiera-eragina aitortzea.

Lehen irtenbidea da Konstituzio Auzitegiak baztertu nahi duena, baina bigarren irtenbidea aplikagarria izan dadin legeren batean jaso beharko litzateke, eta halakorik ez dago. Praktikan interesdunak Administrazioari agertu behar badio bidali zaion jakinarazpena gaztelera bidal dakiola, ez dirudi ezerosotasun hori larregizko kargatzat har daitekeenik, jakinda, gainera, Konstituzio Auzitegiak, berak, hizkuntza propioaren erabilera normala begirunez hartu duela.

Besterik da, Udal batek bere bandoak euskara hutsez argitaratzen dituenan bertan jarritz gaztelaniaz nahi duenak udaletxean bandoaren gazteleraizko bertsioa eskatzeko aukera izango duela. Halako praktikek Udal Lege proiektuaren babesik ez lukete izango. Konstituzio Auzitegiaren doktrina bera jaso eta legera eraman delako, irakurketa hura petrifikatuz. Konstituzio Auzitegiak bere jurisprudentzia alda dezakeenez, ez da komeni hura legera hitzez hitz ekartzea.

Berez, artikulua gauza positibo bat du udalerri euskaldunei begira, euskarazko funtzionamendua aintzat hartzen duela, baina gauza negatibo bat ere: interesdunak jakinarazpenak erdaraz helarazi behar dizkietelako interesdunak gaztelera erabili nahi dutela adierazi aurretik. Aldiz, beste gune soziolinguistikoetako udalerriei begira, negatiboa da erdara hutsezko funtzionamendua aintzat hartu izana, baina positiboa da jakinarazpenen kontua (euskaraz helarazi behar baitira interesdun euskaldunek ezer ere eskatu gabe). Problema da, euskal guneetako praktikak erabat gainbegiratuak izan daitezkeela, baina, aldiz, erdal guneetako praktikak modu lausoagoan aztertuko dituztela auzitegiek.

4.4 Euskararen erabilerarekiko udal-eskumenak (eskumena bai baina betebeharrak ez?)

7 artikulua euskara arloan udalerriek dituzten eskumenak argitzera dator. Hau izan da Udalerri euskaldunek izan duten arazo juridikorik

**Udal Lege
proiektuko 6.3
paragrafoak
Administrazioari
betebehar bat
ezartzen dio:
euskara zein
gaztelera erabili
nahi duen
hiritarrari bere
hizkuntza
eskubidea balia
dezan
erraztasunak
eman diezaiola.**

**7 artikuluko
lehen
paragrafoak
Udalerriek
euskararen
erabilera
sustatzeko eta
beren
eskumeneko
zerbitzuetan
euskararen
erabilera
normalizatzeko
plangintzak
egiteko eskumena
dutela agertzen
da.**

nagusienetarikoa eta artikuluko honen bitartez egoera artezte bidean jar daiteke. 7 artikuluko lehen paragrafoak Udalerriek euskararen erabilera sustatzeko eta beren eskumeneko zerbitzuetan euskararen erabilera normalizatzeko plangintzak egiteko eskumena dutela agertzen da. Esan bezala, erabat positibotzat jo daiteke ezarpen hau, jurisprudentziaren eraginez zalantzan jarri baita udalerriek euskara normalizatzeko gaietan eskumena dutenik⁵⁵.

Gaia bere neurrian koka dezagun jurisprudentziari kritika egitetik abiatu behar dugu, izan ere juridikoki oinarri nahikoa dago udalek hizkuntza normalizazio gaietan eskudun direla baieztatzeko. Lehenik eta behin, Udalek euskara gaietan dituzten eskumenak, Erkidegoko legediak aitortzen dizkietenak dira. Noski, Autonomia Estatutuaren arabera, euskararen erabilera ofizialaren erregimen juridiko orokorra arautzea Autonomia Erkidegoko erakunde erkideei dagokie (Eusko Legebiltzarra eta Jaurilaritza)⁵⁶; baina hori bezain egiazkoa da foru- zein udal-erakundeek, botere publikoak diren neurrian, Erkidegoko araubidea baliatu eta euskararen ofizialtasunetik eratortzen diren hizkuntza eskubideak bermatu behar dituztela. Hortaz, udal eskumeneko arloetan, udalei soilik dagokie euskararen normalizazio prozesua abian jartzea. Ahalmen edo eskumen hori udal arauen bitartez gauza daiteke (Ordennantzak eta Plangintzak). Euskara Normalizaziorako Legeko 5.3 artikulua zein 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoak, bere 1.2 artikuluan udalek euskara gaietan dituzten eskumenak argiro agertzen dituzte⁵⁷.

Hori horrela izanik, udalek euskararen normalizazio prozesua arautzerik badutela baieztatu behar dugu, betiere Erkidegoak onartzen duen marko juridikoaren barne. Hots, udalei aitortu zaizkien eskumen materialeko arloetan, eta baita euren barne funtzionamenduan ere, euskararen erabilpena arautzeko eskumen osoa dute. Ezin daiteke bestelakorik ondorioztatu, euskararen normalizazioa udal interesen esparruaren barne baitago, eta horrek legegilea behartzen du udalei hizkuntza arloan eskumenak aitortzera, udalerrien “hizkuntza autonomia” konfiguratu.

Beraz, Udal Lege proiektuko 7.1 artikulua ongiatorria izan dadila, gatazka juridikoa baketzera baitator; edozelan ere, artikulua ezer ere esango ez balu ere, juridikoki zalantza gutxi izan beharko lirateke udalek euskara gaietan eskudun direla baieztatzeko, betiere Erkidegoko araubidearen markoaren barne.

Udal Lege proiektuko 7.1 artikuluari egin dakiokeen kritikarik nagusia bere fokatze estatikoegia da. Udalek euskara gaietan eskumenak

dituztela aitortzea ongi dago, baina hori ez da nahikoa. Legeak eskumena izateaz gain, betebeharra era badutela aipatu behar izan duelakoan gaude.

7.2 artikulua euskararen sustapenaz dihardu kanpo jardueretan zentratuz. Bigarren paragrafo hau bereziki interesgarria da euskararen erabilpena sustatzeari begira finantza laguntzak aurreikusi dituelako, lege mailako arau batean. Edozelan ere, paragrafo honek, aurrekoari antzeman dizkiogun arazo berdinak ditu, ez baita nahikoa eskumena aldarrikatzea. Eskumena aldarrikatzeaz gain, udalek beren udalerriko biztanleriari begira euskararen erabilpena sustatzeko politikak eta neurriak abiarazi behar dituztela jasotzea proposa daiteke.

4.5 Hizkuntza paisaia “elebitasuna” edo “euskaraz behintzat”?

7. artikulua 4 paragrafoan udalek hizkuntza paisaia elebitasuna bermatu behar dutela ezartzen da. Euskararen normalizazioaren ikuspegitik “elebitasunaren” aldeko joera zurrunezia gerta daiteke zenbait testuinguruetan. Elebitasunak dakarren zurruntasuna malgutzearen aldeko gara, euskararen normalizazio osoari lagundu baino, elebitasuna oztopo gerta baitaiteke zenbat testuingurutan. Elebitasuna orokortu gabe, gutxien-gutxien euskararen presentzia bermatzea eraginkorragoa izan daiteke, udalerrien esku utziz udalerrietako hizkuntza paisaiaren normalizazioari ekiteko eskumena. Bereziki euskal eta erdal hitzak oso antzekoak direnean edo, erabilera arrunteko hitzak izanik, erabat ezagunak diren euskarazko terminoak soilik erabiltzea, neurri proportzionatua izan daiteke, baita esparru pribatuan abiarazi daitezkeen sustapen politiken kasuan ere, betiere inola debekatu gabe gazteleraren erabilpena errotulazio pribatuan. Hortaz, arlo honetan udalei autonomia esparru zabalagoa uztearen alde egin dezakegu. Hizkuntza paisaia “euskara behintzat” bermatzea hobesten dut “elebitasuna” bermatzea baino.

4.6 Hizkuntza eskumenak baliatzeko tresnak eta teknikak

Udal Lege proiektuko 7 artikuluko 5. eta 6. paragrafoetan euskara sustatzeko udalek balia ditzaketen tresnak eta teknikak jaso dira. Batetik, Udalerriek euskararen erabilaren eremuan aitortuak dituzten eskumenak ordenantzak, erregelamenduak eta jarduera-planak onartzuz baliatu ahal izango dituztela agertzen da, eta bestetik, toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituztela; mankomunitate, partzuergo, elkarte

**7 artikuluko
lehen
paragrafoak
Udalerriek
euskararen
erabilera
sustatzeko eta
beren
eskumeneko
zerbitzuetan
euskararen
erabilera
normalizatzeko
plangintzak
egiteko eskumena
dutela agertzen
da.**

**Edozelan ere,
artikuluak ezer
ere esango ez
balu ere,
juridikoki
zalantza gutxi
izan beharko
lirateke udalek
euskara gaitan
eskudun direla
baiezatzeko,
betiere
Erkidegoko
arabidearen
markoaren
barne.**

**Elebitasuna
orokortu gabe,
gutxien-gutxienik
euskararen
presentzia
bermatzea
eraginkorragoa
izan daiteke,
udalerrien esku
utziz
udalerrietako
hizkuntza
paisaiaren
normalizazioari
ekiteko
eskumena.
Bereziki euskal
eta erdal hitzak
oso antzekoak
direnean edo,
erabilera
arrunteko.**

eta udalerriz gaindiko bestelako erakundeak sortu edo halakoetan esku hartu ahal izango dute, eta elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dute.

Udalerriei aitortzen zaizkien tresnak, bereziki araugintza tresnak dira (ordenantzak, erregelamenduak eta jarduera-planak). Baina, araugintzari lotutako tresna horiez gain, euskara sustatzeari begira, administrazio-zuzenbidean klasikoak diren bestelako jarduera moduetan pentsa genezake, adibidez, sustapen jardueraren baitan izan daitezkeen tekniketan, zerbitzu publikoak eskaintzearen bidean eta, akaso, zigortzeko ahalmena baliatzean, betiere legaltasun printzipioaren menpe, edo legeek ezar dezaketenen arabera.

Bestetik, udalek dituzten hizkuntza eskumenak baliatzerako orduan, Toki administrazioako araubideak aurreikusten dituen elkarketa forma guztiak baliatu ahalgo dituzte. 6. paragrafoak bereziki administrazioen arteko lankidetzaz zein elkarketa bideratzeko sistemak aipatu ditu. Edozelan ere, horrek ez du esaterik nahi erakunde pribatuekin antzeko lankidetzaz eta laguntza teknikak gauzatu ezin izango dituztenik.

4.7 Administrazioen arteko harremanak (akordioen beharra)

7 artikuluko 7. paragrafoan administrazioen arteko harremanez diharduenean euskararen erabilpena arian-arian sustatuko dela aurreikusi da, akordioaren bideari lehentasuna emanez. Jarrian paragrafoak dio administrazioek, euren arteko harremanetan, ofizial diren bi hizkuntzetatik edozein erabil dezaketela, modu indistintuan edo bereizigabeen erabili ere.

Paragrafo honek ezartzen duanaren harira esan behar da, batetik, administrazioen artean euskara erabiltzea ez dela ezertan akordio edo lankidetzaz hitzarmen baten menpe utzi behar. Administrazio batek beste bati helarazten dion dokumentua euskara hutsez idatzita badago, juridikoki baliozkoa izateaz gain, eragin juridiko osoak sortu behar ditu Administrazio hartzailean.

Akordioaren bidea saiatu behar dela ezartzean, euskararen ofizialtasunari baldintza berri bat ezartzea litzateke, zuzenbidearen arabera bidegabekoa litzatekeena. Konstituzio Auzitegiak dioenari begira, ofizialtasunaren deklarazioak administrazio publiko guztietan betebeharrak sortarazten ditu. Administrazio bakoitzaren betebeharra da ofizialtasun bikoitzari egokitzea⁵⁸. Administrazioen ardura osoa den egokitzearen hori ezin bal-

dintza daiteke lankidetzak akordioak sinatzeko behararen bitartez, bestela euskararen ofizialtasuna ez litzateke benetako ofizialtasuna izango.

4.8 Udal langileak eta euskara

Bukatzeko, 5. Xedapen Gehigarrian nazio gaikuntza duten funtzionarioen erregimenaz dihardu. Xedapen gehigarri horretako 5 idazatiak udalerriei dagozkien eskumenak zerrendatzen dituenean interesgarria izan daiteke propio aipatzea, toki-administrazioek euskararen ezagutza kontutan hartu behar dutela hornitzeko lehiaketetan, hizkuntza eskakizunen sistemarekin bat.

4.9 Proiektuan jaso gabe geratu diren gaiak

a) *Hizkuntza eraginaren ebaluazioa*: Ingurumenaren arloan ohiko babes teknika den ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa, hizkuntza arloa ekartzea interesgarria gerta daiteke. Udalei onartzea dagozkien proiektu zein planek udalerriko hizkuntza egoeraren gainean eraginak izan dezakete. Eragin horiek bereziki larriak izan daitezke hizkuntza arnasguneak hauskorrak baitira. Plan zein proiektuek hizkuntzaren gain izan dezaketen eragina neurtzea eta neurri zuzentzaileak proposatzea benetan baliabide eraginkorra izan daiteke euskararen berreskurapenari begira. Juridikoki eragin horiek ebaluatzeak ez du inolako arazorik sortzen, besterik da neurri zuzentzaileen gaia, eraginkorrak izan daitezen lege estalduraren beharraz gainera arrazoizkoak eta proportzionatuak izan beharko baitira. Bide horretan, UEU, Kontseilua eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 2015.urtean antolaturiko “Lurraldea eta Hizkuntza- Hizkuntza eta Lurraldea II” izeneko jardunaldietan Eragin Linguistikoa Ebaluatzeko tresna (ELE) aurkeztu zen. Dokumentu hori abiapuntu interesgarria izan daiteke proposamen hau edukiez betetze aldera.

b) *Kontratazioan eta diru-laguntzetan hizkuntza klausulak*: Udalek egiten dituzten kontratuetan zein ematen dituzten diru-laguntzetan euskara sustatzeko klausulak ezar dezaten, interesgarri gerta daiteke Udal legean aukera hori beren-beregi aipatzea. Berez, nahi-taezkoa da ondasunak eta zerbitzuak eman eta hartzeko burutzen diren administrazio jardueretan bi hizkuntza ofizialetan jarduteko gaitasuna izatea, beraz, administrazioak enpresa pribatu baten esku jartzen duenean prestazioak emateko ardura, euskaraz jarduteko gaitasuna duela eta hizkuntza eskubideak zainduko dituela bermatu beharko lirateke.

***Akordioaren
bidea saiatu
behar dela
ezartzean,
euskararen
ofizialtasunari
baldintza berri
bat ezartzea
litzateke,
zuzenbidearen
arabera
bidegabera
litzatekeena.***

**Ingurumenaren
arloan ohiko
babes teknika
den
ingurumenaren
gaineko
eraginaren
ebaluazioa,
hizkuntza arlora
ekartzea
interesgarria
gerta daiteke.**

**Plan zein
proiektuek
hizkuntzaren
gain izan
dezaketen
eragina neurtzea
eta neurri
zuzentzaileak
proposatzea
benetan baliabide
eraginkorra izan
daiteke
euskararen
berreskurapenari
begira.**

Halere, kontratazioari buruzko gaiari heltzeko aukerak juridikoki ez dira errazak, batetik Estatu zentralaren esku baitago kontratazio legediaren oinarriak arautzeko eskumena⁵⁹, eta bestetik Europar Batasuneko legediak zeharo baldintzatu duelako kontratazio araubidea. Lehenari helduz, argi dago aukera mugatuak izan ditzakeela Erkidegoko lege batek kontratazioa, bera, arautzeko; aitzitik, hizkuntza arautzeko dituen eskumenetan oinarritu beharko da kontratueta hizkuntza klausulak bidezkoetzeko.

Bigarrenari dagokionez, aurreratu bezala, Kontratazio Legedia Europar Batasuneko zuzenbidearekin lotura estua du. Europar Batasuneko araudia kontutan hartuz, hizkuntza eskakizunak onargarriak izan daitezten, kontratuaren objektuarekin edota bere exekuzioarekin harremana izan beharko dute (adibidez hiritarren hizkuntza eskubideak bermatze aldera). Detailetan erreparatu barik eta labur esanda, hizkuntza, kontratazio prozesuaren une desberdinetan kontutan hartua izan daiteke: esleipen irizpide gisa, balorazio irizpide gisa, baina bereziki, kontratugilearen betebeharrak gisa.

Esleipen irizpide gisa euskara erabiltzeagatik puntuazioa eskaintzeko aukera mugatua da. Fase honi begira, euskara jakin edo erabiltzeagatik puntuazioa eskaini ahalko da soilik hizkuntza ezaugarriek eskaintza onuragarriagoa bihurtzerik badu (adibidez, dokumentazioa euskaraz lantzeak itzulpen gastuak aurrezterik dituenen). Bigarrenaz, kontratugilea aukeratzeko euskara balorazio irizpide gisa kontutan hartu ahal izango da, baina kontu handiz, kontratuaren tipologiaren arabera eta honek eskatzen dituen prestazioaren arabera. Aldiz, euskara baloratze biderik argiena, kontratuaren prestazioaren baldintzei lotuta etor daiteke, betiere hizkuntza baldintzak Europar Batasuneko Zuzenbidearekin bateragarriak badira eta lizitazio-iragarkian eta pleguan, eta kontratuan adierazten badira. Berez, gizarte klausulak kontratuari gehitzeko biderik ohikoena prestazioei lotuz gauzatzea da. Kontratuak aipatu ahalko ditu: kontratua betearaztean euskara baliatu beharko dela, errotulazioan, oharretan, gizarteari zuzenduriko komunikazioetan, e.a. Halaber, kontratuak aipatu ahalko du hizkuntza baldintzak kontratuaren betearazpen baldintzak direla eta bere gauzatze-eza kontratua bertan behera geratzea ekar dezakeela.

Diru-laguntzei dagokienez, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 17. artikulua arabera onuradunei eska dakizkiekeen baldintzak diru-laguntzaren oinarrietan aurreikusitak izan beharko dira. Euskara

sustatzeko klausula horiek babes juridiko erantsia jasoko lukete Udal Lege proiektuak halako zerbait jasoko balu: toki administrazioen dirulaguntzen onuradun diren enpresa zein norbanakoek gutxienez euskara erabili behar dute errotulazioan, oharretan eta publikoari zuzendu beharreko dokumentazioan, gutxienez horiek lotuta daudenean laguntzaren edo hitzarmenaren helburuarekin.

ONDORIOAK

I Ondorioen atala hausnarketa orokor batekin abiatuko dugu, artikuluan aztertu ditugun gaitetan zehar-lerroz azaldu den gako bat islatuz. Gako hori honako galdera honen bitartez formula daiteke: “zein da (behar luke izan) gure hizkuntza normalizazio prozesuaren helburua?” Galdera horren erantzuna sarritan “elebitasuna” izaten ohi da. Modu orokorrean elebitasunaz hitz egiten denean, bi hizkuntzak ezagutzeko eta baliatzeko gaitasuna izatea aipatzen da. Helburu hori administrazio mundura ekarri gero, udalek bi hizkuntzatan jarduteko gaitasuna ekarriko luke. Bide bertsutik, norbanako edo administratuen ikuspegitik, hizkuntza ofizial bietan jarduteko gaitasuna bermatzea izango litzateke.

Udalerrietako euskararen egoera kontutan hartuz, elebitasunaren helburuak nolabaiteko inflexio puntura eramán gaitzake, baina bai administratuok zein udal administrazioak bi hizkuntzetan jarduteko gaitasunik badute, zergatik aukeratuko dute euskara erabiltzea? Ezaguna denez, euskararen eta gaztelaren bizitasun etnolinguistikoak zeharo desberdinak dira. Hizkuntza batean eta bestean dagoen hizkuntza eskaintza oso desberdina da (gizarte komunikazioaren esparruan, aisian, komunikazio teknika berrietan, mundu juridiko zein ekonomikoan...). Hizkuntzek betetzen dituzten gizarte funtzioak ez daude orekatuta. Gaztelarak estatu hizkuntzek izaten ohi dituzten onurak baliatzen ditu, euskarak, aldiz, oraindik ere, hizkuntza gutxitu eta ez normalizatua izaten jarraitzen du. Gizartea elebiduntzea ez da nahikoa hizkuntza desorekak orekatzeko, hizkuntzaren erabilpenean hainbat faktorek eragina baitute.

Hizkuntza politikaren helburutzat “hizkuntza liberalismoa” hartzeak, hots hizkuntza askatasun hutsa hartzeak, zalantzak sortzen ditu bi hizkuntzen arteko aldeak horren nabarmenak diren kasuetan: bata funtzionalki ez normalizatua eta bestea funtzionalki osoa eta indartsua. Gaiari heltzeko abiapuntu desberdin bat proposa daiteke, honako honetan oinarri hartuz: “hizkuntza elkarteek ematen diote bizitasuna (bitalitatea) hizkuntzari”. Abiapuntu horretatik, hizkuntza politikak

**“Zein da (behar luke izan) gure hizkuntza normalizazio prozesuaren helburua?”
Galdera horren erantzuna sarritan “elebitasuna” izaten ohi da.**

**Egungo lege
paradigmak
osatzeko bidea
egin beharko
litzateke:
hizkuntza
askatasun
hutsetik, berezko
hizkuntzadun
eremu
funtzionalak
indartzera jauzi
eginez.**

osagai berriak barneratu beharko lituzke, hizkuntza aukeraketaz gaindi. Hots, hizkuntza politikak bi perspektibak kontutan hartu ahalko lituzke: perspektiba indibiduala batetik, hizkuntza eskubideak aitortuz eta bermatuz, eta bestetik perspektiba kolektiboa, hizkuntzaren dimentsio sozialean oinarri hartuko lukeena, eta euskal edo euskarazko gizarte elkarte indartzea helburutzat izango zukeena. Orain artekoan lehen perspektiba izan da gure hizkuntza politikaren parametro nagusia, baina zenbait testuinguruetarako (udalerri euskaldunentzako batik bat) zurrunea dela frogatu da.

Uste dugu perspektiba indibiduala eta kolektiboa, biak, juridikoki osagarriak izan daitezkeela. Osagarritasuna bilatze aldera, egungo lege paradigmak osatzeko bidea egin beharko litzateke: hizkuntza askatasun hutsetik, berezko hizkuntzadun eremu funtzionalak indartzera jauzi eginez. Alegia, euskararen garapen osoa hizkuntza-funtzioak eta -eremuak bermatuz, eta eremu horiei babes juridikoa eskainiz soilik etor daiteke, ingurumen zuzenbideak natur guneak babesten duen antzera. Hots, norbanakoak euskalduntzetik, eremuak euskalduntzera ere jauzi egin behar delakoan gaude. Beste modu batera adieraziz, euskaraz jardungo duten eremuak juridikoki bultzatu eta bermatzea proposatzen dugu (udalerri euskaldunak, eskola, ea). Planteamenduak galdera batera garamatza: lege estaldurarik eman dakioke planteamendu horri?

Lan honetan agertu ditugun zioetan oinarrituz, egungo marko juridikoak hizkuntza politikaren “lurralteratzeari” mugak ezartzen badizkio ere, erroitik baztertzen ez duela argitzen saiatu gara. Bide horretan, Udal Lege proiektuaren berrikuntzak azaldu ditugu. Udal Lege proiektua euskararen lurralteratzearen bidean aurrerapausoak dakarzkigula agertu dugu. Berez, proiektuak euskarazko administrazio jarduerak legez ahalbideratzen ditu, egungo hizkuntza sistemarekiko jauzia ekarriz. Administrazioetako hizkuntza erabilera elebidunetik, bereizigabeko hizkuntza erabilera sistema batera igaroko gara, toki-administrazioetan soilik indarrean izango litzatekeena. Lege proiektuak ez ditu ezarpen zehatzik jaso udalerri euskaldunentzat, nahiz eta udalerri euskaldunek izan dituzten lege auziak proiektuan agerpen inplizitua izan. Horien artean, udalek hizkuntza arloan dituzten eskumenen auzia dago, proiektuak argitu duelarik.

Halere, proiektuak argi-ilunak badituela azaldu dugu, konponbidera daitezkeenak hain zuzen ere. Euskarazko funtzionamendua legez ahalbideratzea erabat positiboa da udalerri euskaldunentzat, baina ez dago

argi, beste udal batzuek gaztelera hutsez jarduterik izango ote duten. Badirudi udalerrri euskaldunen ezaugarria den euskarazko funtzionamendu ohikoa juridikoki babestearen ordainean, proiektuak gaztelera funtzionamendua ahalbideratu duela. Proiektuak hizkuntza funtzionamendua ofizialtasunean oinarritu du, eta ez hizkuntza propioaren kontzeptuan. Horrek ofizialtasunari lotu behar diogun hizkuntzen arteko oreka bermatzea eskatzen du, erabilera normaleko hizkuntza modu indistintoan agertuz. Artikulu honetan defendatutako arrazoietan oinarrituz, hizkuntza propioari nolabaiteko eragin juridikoak lotzea zilegi eta konstituzioaren arabera da; hala egin izan balitz, orube elebidunetik abiatuta euskararen erabilera normala zilegiztatzerik legoke.

Euskararen Legea eta Udal Lege proiektuaren arteko harremanak ongi aztertu beharko lirateke, aurrena bigarrenak ekar ditzakeen aurrerapausoak neutralizatu ez ditzan. Horri dagokionez Euskararen Legeko 6.2 artikulua esanbidez indargabetzearen komenigarritasunaren alde agertu gara. Bestalde, euskarazko funtzionamendu normalizatua ez da ezertan dokumentu zerrenda batera mugatu behar, proiektuak agertzen duen lez. Udalek euskararen (barne zein kanpo) erabilpena sustatzeko eskudun direla deklaratzeko ez da aski, proiektuari sustapenaren aldeko konpromiso argiagoa eska dakiokelarik.

Zenbaitetan Udal Lege proiektua zurrunezia da, adibidez hizkuntza paisaia “elebitasuna” bermatu behar dela ezartzen duenean, edota zinegotziren bat euskaraz ez dakien kasuetan euskaraz jardun ezin izango dela ezartzean. Lan honetan agertu ditugun arrazoiengatik, kasu horietan bidezko litzateke udalei autonomia maila zabalagoa bermatzea. Haatik, proiektuak agertu ez dituen zenbait gai azpimarratu ditugu, adibidez, kontratazioan euskararen aldeko sustapen neurriei babesa eskaintzeko aurreikuspenen baten komenigarritasuna aipatu dugu; eta baita udalek onartzen dituzten plangintza eta proiektuen hizkuntza eragina neurtzeko baliabideen komenigarritasuna ere, arrazoizkoak eta heinekoan izan daitezkeen neurri zuzentzaile eraginkorrei bide eman ahal izateko. ●

OHARRAK

1. Lan hau lantzeko Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialak 2014ko azaroaren 21eko alean, 103 zbk.dunean, argitaratu den Euskadiko Udal Legearen proiektua baliatu dut. Halere, aurreko bertsio batzuk ere (aurreproiektuak) kontutan izango ditugu.
2. 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzakoa (aurrerantzean Euskararen Legea).
3. Euskararen udal erabilera hobetzea ardatz hartuta, proposamen desberdinak egin ahalko dira tokian tokiko hizkuntza abiapuntua zein den kontutan hartuz, udalerriz udalerriz hizkuntza errealitateak zeharo desberdinak baitira.

**Artikulu honetan
defendatutako
arrazoietan
oinarrituz,
hizkuntza
propioari
nolabaiteko
eragin juridikoak
lotzea zilegi eta
konstituzioaren
arabera da;
hala egin izan
balitz, orube
elebidunetik
abiatuta
euskararen
erabilera
normala
zilegiztatzerik
legoke.**

**Zenbaitetan Udal
Lege proiektua
zurrunegia da.**

**Haatik,
proiektuak
agertu ez dituen
zenbait gai
azpimarratu
ditugu.**

4 Hizkuntza erregimen juridikoa osatze aldera Autonomia Estatutuen gaineko bidalketa egiten denez, esaten ohi da Konstituzioak hizkuntza eredu malgua eta zabala ezarri duela. Izatez, Konstituzioak ez ditu adierazten zein hizkuntzek osatzen dute 3.2 artikuluan aipatzen dituen “gazteleraz besteko gainerako hizkuntza” horiek, ezta ofizialtasunak zein eskubide edo ahalmen dakartzan ere. Ikus Vernet, Jaume (koor.), Eva Pons, Agustí Pou, Joan Ramon Solé i Anna M. Pla, *Dret lingüístic*, Ed. Cossetània, Valls, 2003, 91 or.

5. Ikus Cobreros Mendazona, Edorta, *El régimen jurídico de la oficialidad del euskara*, HAAE-IVAP, Oñati, 1989, osorik.

6. Ikuspegi soziolinguistikotik abiatuta lurraldetasun eta pertsonaltasun printzipioaren arteko bikoizketa Heinz Kloss-ek formulatu zuen XX. mendeko hirurogeigarren hamarkadan. Bere formulazioaren arabera, lurraldetasun printzipioak ez du ezinbestean elebakartasuna ekarri behar. Kloss-en lurraldetasun printzipioari buruz zera adieraz zuen McRae, Kenneth D, in “The principle of territoriality and the principle of personality in multilingual states” *International Journal of the Sociology of Language*, 1975 Issue 4, 34 or. “the linguistic regime may confer exclusive rights on a single language, or it may confer limited (or even extensive) rights on a minority language in conjunction with one or more other languages”. Gaiak sakontzeko ikus Solé i Durany, Joan Ramon, “L’aplicació de la Constitució i de l’Estatut d’autonomia de Catalunya. Model lingüístic territorial o model personal en els diferents sectors?” in A. Milian i Massana (koord.), *El plurilingüisme a la constitució espanyola*. Institut d’Estudis Autonòmics, Bartzelona, 2009, 145 eta hur.

7. Ofizialtasunaren eragin hau doktrinalki erabateko adostasunez onartzen da. Ikus, besteak beste Milian Massana, Antoni, “La regulación constitucional del multilingüismo”, *Revista Española de Derecho Constitucional*, 10 zbk., 1984, 130-132 eta 142-143; Cobreros Mendazona, E., *El régimen jurídico de la oficialidad...* aurrez aipatuta, 36 or.; Agirreazkuenaga, Iñaki, “Reflexiones jurídicas sobre la oficialidad y el deber de conocimiento de las lenguas”, in Martín-Retortillo, Sebastián (koord.), *Estudios sobre la Constitución Española. Homenaje al profesor Eduardo García de Enterría*, Civitas, Madril, 1991, II Liburua, 675-696; Vernet, Jaume (koord.), eta al, aurrez aipatuta, 91 eta 92.

8. KAE 82/1986, ekainaren 26koa, 3. ZO (zuzenbide oinarria).

9. Konstituzio Auzitegiaren Epaia (KAE) 31/2010, 14 zuzenbide oinarria (letra etzanda gehituta dago). Halere, Konstituzio Auzitegiak ez zuen Kataluniako 6.2 artikulua konstituzio-kontrakotzat deklaratu. Hori egin gabe, artikuluen hedapena zedarritu zuen, adieraziz hezkuntza arloan eta funtzionarioen arloan katalanera ezagutzeko betebeharra izan daitekeela, baina inola ere ez katalanera ezagutzeko betebehara orokorrik.

10. Ikus 4/2001 Lege Organikoa, azaroaren 21ekoa, Eskatzeko eskubideari buruzkoaren 5. Artikulua, hizkuntza koofizialen erabilera aintzatetsiz; 11/2007 Legea, Zerbitzu Publikoetara bide elektronikoz sarbidea bermatzeari buruzkoa, 6. Xedapen Gehigarria, administrazio elektronikoa baliatuz hizkuntza (ko)ofizialak erabiltzeko ahalmena aurreikusiz; Senatuko Erregelamendua 56 bis artikulua eta 4 Xedapen Gehigarria, Senatuko zenbait agerraldietan hizkuntza koofizialen erabilera aurreikusiz.

11. Hizkuntza aniztasuna babestu eta sustatzeko eginkizuna Autonomia Estatuaren ezauzgarritzat jo zuen KAE 205/1990. Konstituzioko 3 artikuluen hedapen juridikoaz ikus Arzoz Santisteban, Xabier, “Lenguas y modalidades lingüísticas en la Constitución española: ¿Dos regímenes jurídicos diferenciados?” in Antoni Milian i Massana (koor.), *El plurilingüisme a la Constitució Espanyola*, Institut d’Estudis Autonòmics 65 zbk., Bartzelona, 2009, 61 or. Baita ere José Manuel Pérez Fernández (koor.), *Estudios sobre el estatuto jurídico de las lenguas en España*, Atelier, Bartzelona, 2006, 59 or.

12. Ikus Milian i Massana, “El marc constitucional espanyol relatiu al pl urilingüisme. Model reeixit o regulació obsoleta?” in A. Milñian (koor.), *El plurilingüisme...* aurrez aipatuta, 209 eta hur.

13. Horrez gain hizkuntza oinarritzko eskubideak gauzatzeko bitartekoa da. Perspektiba horri begira esan daiteke oinarritzko eskubideek hizkuntza edukia dutela, hots hizkuntza eduki hori kaltetuz ezker oinarritzko eskubidea bera kaltetuta geratuko litzateke. Adibidez, epaitegietan auziperatuak eskubidea izan behar du bertan adierazten diren gauzez jabetzeko, defentsa egokia prestatze aldera; hizkuntza oztopo bada auzitegian adierazten direnak ulertzeko, “defentsa eskubidea” bera kaltetuta geratuko litzateke.

Beste adibide bat hezkuntza eskubidea izan daiteke, oinarritzko eskubide hau kaltetua geratuko litzatekeelako ikasleak ulertzen ez badu irakasleak erabiltzen duen hizkuntza; halakoetan ez legoke transmisiorik eta hezkuntza eskubidea ez litzateke errespetatuko.

14. KAE 82/1986, ekainaren 26koa, *“es oficial una lengua, independientemente de su realidad y peso como fenómeno social, cuando es reconocida por los poderes públicos como medio normal de comunicación en y entre ellos y en su relación con los sujetos privados, con plena validez y efectos jurídicos”* (2 ZO).

15. KAE 82/1986, ekainaren 26koa, 3 ZO.

16. KAE 82/1986, ekainaren 26koa, 9 ZO.

17. Auzitegi Gorenaren Epaia 1966ko martxoaren 26koa eta 1997ko apirilaren 15koa.

18. AGE 2000 irailaren 27koa, 7 ZO.

19. Ikus Viver Pi-Sunyer, Carles “Prólogo”, in Pérez Fernández, José Manuel (koor.), *Estudios sobre el estatuto jurídico de las lenguas...*, aurrez aipatuta, 16 or, non honako hau adierazten duen hizkuntza politikaren helburuez jarduterakoan *“contribuir a reforzar el papel de esas lenguas propias como lenguas de comunicación intergrupar en el seno de la respectiva Comunidad Autónoma. Ese esfuerzo, que no pone en cuestión las importantes funciones atribuidas al castellano, como lengua de conocimiento general o común, puede ser un elemento necesario para garantizar la supervivencia de esas lenguas: sin funciones relevantes de comunicación, como ponen de manifiesto los lingüistas, difícilmente van a sobrevivir ante los acuciantes retos internos y globales a los que antes me refería”*.

20. Kataluniako Parlamentuko 1/1998 Legeak, urtarrilaren 7koa, Hizkuntza Politikari buruzkoa, bere 2.2 artikuluan zera adierazten du *“El català, com a llengua pròpia, és: a) La llengua de totes les institucions de Catalunya i en especial de l'Administració de la Generalitat, de l'Administració local, de les corporacions públiques, de les empreses i els serveis públics, dels mitjans de comunicació institucionals, de l'ensenyament i de la toponímia”*. Berezko hizkuntzari aitortutako hedapen hori 2006ko Autonomia Estatutuko 6.1 artikulura eraman izan zen.

21. EAEko Auzitegi Nagusiaren Epaia, 1991ko abenduaren 31koa 3 ZO.

22. Auzitegi Gorenaren Epaia 2001eko uztailaren 9koa (RJ 2001, 8753) eta 2000 urriaren 27koa (RJ 2001, 445).

23. *Ibid.*

24. EAE Auzitegi Nagusiko Epaia 2007ko otsailaren 12koa.

25. *Ibid.*

26. EAE Auzitegi Nagusiko Epaia, 2010ko irailaren 30koa.

27. Auzitegi Gorena 2000ko urtarrilaren 26koa (Lekeitio) 2 ZO.

28. AGE 1999ko ekainaren 22koa (RJ 1999\6401) 6 ZO.

29. EAE Auzitegi Nagusiko Epaia 1991ko abenduaren 31koa; Auzitegi Gorena 1999ko ekainaren 22koa (Lizartza); Auzitegi Gorena 2000 urriaren 27koa (Lekeitio); Gorena 2000 azaroa 13 (Leaburu) ; urriak 9 (Alegia); Gorena 2001eko uztailaren 1koa (Mallabia); EAE Auzitegi Nagusiko Epaia 2007ko otsailaren 12koa (Azpeitia); Gorena 2009ko ekainaren 3koa (Azpeitia); EAE Auzitegi Nagusiko Epaia, 2010ko irailaren 30koa (Agurain); Auzitegi Nagusiko Epaia 2014ko irailaren 17koa (Zarautz); Bilboko Adm Auzigaietarako 1 Epaitegia 2014ko uztaila 14koa (Lekeitio)...

30. 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa, bere 6.2 artikuluan bigarren esaldi bat zeukan, honakoa xedatuz: *“adostasunik ez badago, espedienteari edo prozedurari hasiera eman dion pertsonak aukeratutakoa erabiliko da, beti ere, bakoitzak nahi duen hizkuntzan informazioa jasotzeko duen eskubidea gora behera”*. Esaldi hau konstituzio-kontrakotzat jo zuen Konstituzio Auzitegiak 82/1986 Epaian, ekainaren 26koa.

31. 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa, 8.1 eta 2 artikulua.

32. 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa, 8.3 artikulua.

33. Artikulu horren ezaugarri nagusiak honako hauek ziren: a) toki administrazioen

esparruan soilik zen aplikarria; b) egoera soziolinguistikoaren arabera balia zitekeen artikua zen. Bide horretatik Gernikako Estatutuaren 6.2 artikulua erabiltzeko garapena zela uler zitekeen, artikulua horrek hizkuntza politika errealtate soziolinguistikoaren arabera izan behar dela agertzen baitu, erritmo eta abiadura desberdinak aintzatetziz. c) artikulua toki administrazioek hizkuntza ofizial bat bakarria erabiltzerik dutela adierazi zuen, inolako karga inperatiborik agertu barik; d) artikulua modulatzailerik bat bakarria aurreikusi zuen: hiritarren eskubideak ez kaltetzea (aukeraketa eskubidea, diskriminazio eza...). Ez zuen bestelako modulatzailerik jaso ("ohiko hizkuntza" edo "normalean erabiliko den hizkuntza" bezalakorik).

34. KAE 82/1986, ekainaren 26koa, 10 ZO.

35. KAE 31/2010, ekainaren 28koa, 14 ZO.

36. *Ballantyne, Davidson, McIntyre v. Canada*, Communications Nos. 359/1989 and 385/1989, U.N. Doc. CCPR/C/47/D/359/1989 and 385/1989/Rev.1 (1993).

37. KAE 31/2010, ekainaren 28koa, 14 ZO.

38. Ikus Irujo, Xabier eta Urrutia, Iñigo, *Historia Jurídica de la Lengua Vasca (1789-2013)*, HAAE-IVAP, Oñati, 2014, 581 eta hur..

39. *Ibid.* (KAE 31/2010, ekainaren 28koa, 14 ZO).

40. Izan ere, hizkuntza ofizial bata zein bestea erabilera normalekoa izan baitaiteke 31/2010 Epaia adierazi zuenez.

41. Udal barneko lan-hizkuntza erregelamenduz arautu beharko litzateke, Ordenantzek auzokideen eskubideak arautzen baitituzte eta Erregelamenduek, aldiz, barne jarduerak. Udal Lege proiektuko 7.5 artikulua Udalei bide ematen dizkie euskara normalizatzeke Ordenantzak eta Erregelamenduak onartzeari. Halere 7.5 artikulua ere modu orokorrean idatzita dago, eta beraz, Euskararen Normalizaziorako Legeko 6.2 artikulua ere bateragarritzat jo behar delakoan nago.

42. Autonomia Estatutuko 6. artikulua euskara Euskal Herriko berezko hizkuntzatzat deklaratu du, eta baita hizkuntza ofizialtzat ere, gaztelarekin batera.

43. 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duena, zera dio bere 36. Artikuluan: "Estatuko Administrazio orokorreko prozedurak gaztelaraz izapidetuko dira. Dena den, interesdunek autonomia-erkidegoan ofiziala den beste hizkuntza erabil dezakete autonomia-erkidego horretan kokatuta dauden estatuko administrazio orokorreko organoetara jotzen dutenean. Kasu horretan, interesdunak aukeratutako hizkuntzan izapidetuko da prozedura". Argi dago, beraz, interesdun batek euskara erabiltzen duenean Estatuko administrazio periferikoan, prozeduraren dokumentazio guztia euskara hutsez landu beharko dela.

44. KAE 82/1986, ekainaren 26koa, "la utilización por los poderes públicos de una sola de las lenguas cooficiales puede hacerse indistintamente, por propia iniciativa o incluso a elección de los interesados, cuando así se regule" (9 ZO).

45. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak egokitzen zituen Letoniako parlamentuko kide izateko ezarritako hizkuntza ezagutza baldintzak, Estatuak "gai publikoetan esku hartzeko" eskubidea konfiguratzeko ahalmena duela agertuz (ikus Giza Eskubideen Auzitegiko Epaia *Podkolzina v. Latvia*, 2002. apirilaren 9koa). Epaian sakonduz ikus nire artikulua "Exigencias lingüísticas para el acceso a cargos de representación política: comentario a la Sentencia del Tribunal Europeo de Derechos Humanos 9-04-2002 (Asunto Podkolzina C. Letonia)" *Revista Vasca de Administración Pública* 68 zbk., 2004, 251-270.

46. KAE 82/1986, ekainaren 26koa, 10 ZO; 337/1994, abenduaren 23koa, 14 ZO; 31/2010, ekainaren 28koa, 14 ZO.

47. Ikus ere 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola publikoari buruzkoa, 3.2.g) eta 18. artikulua.

48. Gaian sakontzeko ikus Urrutia, Iñigo, *Derechos Lingüísticos y euskera en el sistema educativo*, Lete, Iruña, 2005, 323 or. eta "Lengua y derecho a la educación en la Comunidad Autónoma del País Vasco: reflexiones jurídicas sobre el tránsito hacia un nuevo modelo" *Revista Vasca de Administración Pública* 46 zbk., 2006, 110-150.

49. 6.2 artikulua azken esaldiak "Estatuko Administrazioa" aipatzen badu ere, Estatuko

Administrazio Periferikoari erreferentzia egiten diola ulertu behar da, Gobernu Eskuordetzari hain zuzen ere (ikus 6/1997 Legea, apirilaren 14koa, Estatuko Administrazio Orokorraren antolakuntza eta jarduerari buruzko LOFAGE). Estatuko Administrazio zentralari dokumentazio euskaraz bidaltzeak arazo juridikoak sortaraziko lituzke 30/1992 Legeko 36.3 artikuluekin talka egiteagatik. Edozelan ere, Eskualde eta Eremu Urriko hizkuntzei buruzko Kartaren 9.2 artikulua araberaz interpretazioa bestelakoa izan beharko litzateke.

50. Ikus Administrazio Auzigaietarako Bilboko Epaitegiaren Epaia, 2014ko uztailaren 7koa. Epaia horren arabera Euskararen Normalizazio Legeko 8 artikulua *“exige la forma bilingüe con la excepción de lo que exigen los interesados privados. Sobre ello convendría aclarar que en las relaciones interadministrativas no puede hablarse de interesados privados y que, en virtud del principio de cooperación, el legislador ha dejado claro que las notificaciones se hagan en ambos idiomas”*.

51. Espainian, Eskualde edo Eremu Urriko Hizkuntzei buruzko Europako Karta indarrean dago, Estatuko Aldizkari Ofizialean 2001eko irailaren 15eko alean argitaratu zenaz geroztik. Zehazki 9.2.a) artikuluko idazkia ratifikatuta dago.

52. KAE 50/1999, apirilaren 9koa, 9. ZO. Zuzenbide Oinarri horrek honako deklarazio interpretazionala jaso zuen: *“el art. 36.2, en su segundo párrafo, y el art. 36.3, ambos de la Ley recurrida, son constitucionales siempre que se entienda que la preceptiva traducción al castellano contenida en los mismos no comprende aquellos supuestos en los que los documentos en cuestión deban surtir efectos en el territorio de una Comunidad Autónoma en la cual sea también lengua oficial aquella en la que el documento se encuentre originariamente redactado”* (ibid). Konstituzio Auzitegiaren Epaia horren ondorioz 36.3 artikuluko idazkera aldatua izan zen (ikus 4/1999 Legea, urtarrilaren 13koa, 1.8 artikulua) eta honela geratu zen behin betiko idazkera: *“La Administración pública instructora deberá traducir al castellano los documentos, expedientes o partes de los mismos que deban surtir efecto fuera del territorio de la Comunidad Autónoma y los documentos dirigidos a los interesados que así lo soliciten expresamente. Si debieran surtir efectos en el territorio de una Comunidad Autónoma donde sea cooficial esa misma lengua distinta del castellano, no será precisa su traducción”*.

53. Zentzu honetan ikus Donostiako Administrazio Auzigaietarako 3. Epaitegiaren Epaia, 2015ko otsailaren 3koa. Gure iritziz, Epaia horrek interpretazio egokia egin zuen, udalek Gobernu Eskuordeari helarazten dizkieten euskara hutsezko dokumentuak eraginak sortu behar dituztela aginduz.

54. Kataluniako Auzitegi Goreneko Epaia (Administrazio auzigaietarako 5. Sala) 177/2013 zenbakiduna, martxoaren 6koa, 8. ZO (Gironako Diputazioko hizkuntza erabiltzeko erregelamenduaren aurkakoa); Ikus ere Kataluniako Auzitegi Nagusiko Epaia, martxoaren 6koa (Lleidako Diputazioko hizkuntza erregelamenduaren aurkakoa); Kataluniako Auzitegi Nagusiko Epaia 2013ko maiatzaren 23koa (Bartzelonako Udaleko hizkuntza erregelamenduaren aurkakoa), 6 ZO.

55. Beste batzuen artean, ikus Auzitegi Goreneko Epaia 2007ko apirilaren 17koa, eta 2009ko ekainaren 3koa.

56. Ikus Gernikako Estatutuko 6.2 artikulua.

57. 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkartearen herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena, zera xedatu bere 1.2 artikuluan: *“Euskal Autonomia Elkartean dauden herri-administrazioekin euskaraz jarduteko eskubide osoa du herritarrak eta, beraz, eskubide hori bete dadin, herri-aginteei, nork bere esparruan, euskara zerbitzu- zein lan-hizkuntz modura normaltasunez erabiltzeko hartu beharreko erabaki guztiak hartuko dituzte”*.

58. KAE 82/86, ekainaren 26koa, 8 ZO.

59. Konstituzio Espainiarreko 149.1.18 artikulua.